



**kiröletik**  
bagoaz euskaraz

# KIROLEAN EUSKARA SUSTATZEKO PLANA 2021 -2024

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# KIROLEAN EUSKARA SUSTATZEKO PLANA 2021 -2024



**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

VITORIA-GASTEIZ, 2022

Lan honen bibliografía-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: [https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin\\_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001](https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001)

**Argitaraldia:** 1.a, 2022ko ekaina

**©** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

**Ale-kopurua:** 500 ale

**Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Cental de Publicaciones del Gobierno Vasco  
C/ Donostia-San Sebastián 1,  
01010 VITORIA-GASTEIZ

**Diseinua eta maketazioa:** Gráficas Irudi, S.L.

**Estalkiaren irudia:** Alextype- stock.adobe.com

**Inprimatzea:** Gráficas Irudi, S.L.

**ISBN:** 978-84-457-3652-4

**Lege-gordailua:** LG G 439-2022



# AURKIBIDEA

SARRERA .....	5
1. AURKEZPENA .....	7
1.1. Aurrekariak .....	8
2. OINARRIZKO DIAGNOSIA .....	9
2.1. Erakundeetako eragileen iritziak .....	13
2.2. Adituen iritziak .....	18
2.3. AMIA .....	23
3. LANDUTAKO PROZESUA ETA METODOLOGIA .....	25
3.1. Azalpen orokorra .....	25
3.2. Eragin esparrua eta irizpideak .....	27
3.3. Planeko esku-hartzeen kronograma .....	29
4. PLANAREN BISIOA .....	31
5. AZKEN HELBURUAK .....	33
5.1. Trebakuntza .....	33
5.2. Erabilera .....	35
5.3. Berrikuntza .....	36
5.4. Sustapena .....	37
6. EREMU ESTRATEGIKOA .....	39
6.1. Eragileak .....	39
6.2. Tresnak .....	39
6.3. Arlo giltzarriak .....	40
7. HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZA PLANA .....	43
8. MAPA ESTRATEGIKOA .....	69
9. AGINTE TAULA ESTRATEGIKOA ETA PLANAREN JARRAIPENA .....	71

## SARRERA

Euskararen erabilera normalizatzeko behar-beharrezkoa da gaur erabiltzen ez den eremuetara iristea gure hizkuntza eta helburu hori lortzeko arlo ezberdinetan erein behar da euskararen hazia. Hori horrela izanik, aspaldi jarri zuten Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako arduradunek (HPS) arreta hizkuntzak erabilera informala duen eremuetan, bereziki aisialdiaren esparruan. Gazteen kasuan, eskolaz kanpoko jarduerak eta guneak lantzea dagokigu, euskara kontsumitu, sortu eta erabiltzeko aukerak erraztu eta euskararen erabilera areagotzeko.

Gure errealitate soziolinguistikoa askotarikoa da. Gazteek euskararekiko dituzten pertzepzioak, bizipenak, gaitasuna eta erabilera ere askotarikoak dira. Horietako bakoitza kontutan harturik hizkuntza politika bereziak garatzea dagokio gure sailari, aniztasun horretara egokitzeko. Erabilera erdigunean jarrita. Eta gune horietako eskola-adineko gazteen artean euskararen erabileran eragitea hartu behar dugu jomuga.

Ikerketek argi adierazten dute kirola dela EAEko gazteen sozializazio-eremu garrantzitsuenetakoa. Baita eskolan euskaldundutako gazte belaunaldi berrien eskolaz kanpoko jarduera nagusia ere. *D ereduko kirola* eta *Euskara Kirolkide* ikerketa-proiektuek adierazi bezala, kirola da euskararen erabilera sustatzeari begira eskola eta kalearen arteko zubi lana egin dezakeen esparrua. Ildo horri tiraka, zubi horren habe egokiak dira *Kirolean Euskara Sustatzeko Plana* eta horri lotutako zein elkarlanean eraikitako hizkuntza politika berezia.

Zabala eta askotarikoa da kirol-egituren mundua: kirol federazioak, epaileen batzordeak, klubak eta horietako barne-eragileak (zuzendaritzak, entrenatzaileak, jokalaria, guraso elkarteak), kirol bakoitzeko elkarte erreferenteak, eta abar. Hori dela eta, funtsezkoa da elkarlanean ekitea 5-18 urte bitarteko gazteen kirol-jardueretan euskararen erabilera hauspotzeko.

Esku artean duzun planak erabilera bultzatzeko tresnak eman nahi dizkie kirola eta euskara uztartzen dituzten eragileei, euskarazko kirol-formaziotik eta hizkuntza-estrategien jabekuntzatik hasita klubaren erabilera-planetaraino.

Bingen Zupiria Gorostidi  
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUA



# 1. AURKEZPENA

Honakoa da egitasmo honen helburu nagusia: kirolaren esparruan, 18 urte bitarteko gazteen euskararen erabileran eragitea, eremu soziolinguistikoak kontuan hartuta eta horietarako berariazko ekintzak zuzenduz. Zehazkiago, 2021-2024 epealdirako planak kirol entrenatzaile eta epaileengan eragitea izango du helburu, euskarazko eta euskarari buruzko formazioaren bidez. Planak bi zehar-lerro ditu, genero-berdintasuna eta gizarte-inklusioa, eta kontuan hartu dira berau diseinatzean. XII. legegintzaldirako (2020-2024) gobernu-programaren arabera, Jaurlaritzaren helburua da “euskararen presentzia eta erabilera indartzea kirol-espazioetan eta jarduera fisikoko espazioetan, aisialdia eta errealizazio pertsonala euskararekin lotzeko ingurune egokia delako. Era berean, euskal kirolarien hizkuntza-eskubideak defendatzea”. Horrekin batera, gobernu-programak ezartzen du emakumezkoen kirola berariaz bultzatu beharra, baita kirolaren balio tradizionalak defendatzea ere, tartean berdintasuna, integrazioa, tolerantzia, elkartasuna eta biolentziarik eza. Ondorioz, horiek guztiak kontuan hartuta prestatu da plana.

Horrez gain, planak arreta berezia jarriko du helburu eta ekintzak EAEko eremu soziolinguistikoetako errealitateetara egokitu daitezen; ondorioz, eremu soziolinguistiko euskalduneko helburuek eta ekintzek ez dute zertan eremu erdalduneko berak izan, eta ekintzek eremuaren araberrako neurgailu berezituak izango dituzte.

Izan ere, plana diseinatzeko egin dugun azterketaren arabera, orain arte ez da modu sistematikoan eragin kirol monitore eta entrenatzaileen euskarazko zein euskarari buruzko prestakuntzan. Euskarari buruzkoan bai, egin izan dira entrenatzaileek jokalarien hizkuntza-aktibazioan eragiteko egitasmo batzuk, baina tokian tokikoak izan dira, ikuspegi estrategiko orokorrik gabekoak.

Dokumentu hau osatzeko zutabeetako batek, *D ereduko kirola* azterketa teoriko-praktikoak, argi adierazten du: kirolak eskola eta kalearen arteko zubilana egiten du nerabe eta gazteen kasuan, eremu formala eta eremu informalearen arteko bidea da; horrela, kirola gakoa izango da etorkizunean euskararen erabilera areagotzeko.

Kirolaren esparrua hain zabala izanda eta eragileak hain anitzak (jokalaria, ikastetxeak, klubak, gurasoak, entrenatzaileak, epaileak, etab.) kirolean euskara sustatzeko plan honek zehatza behar du izan hastapenean; kirola orokortasunean hartu barik, eremu zehatz bat landu, esparru horretan ereindakoak erabileraren areagotzean frutuak eman ditzan. Ondorioz, egindako diagnosiaren emaitzak eta Eusko Jaurlaritzaren eskumenak kontuan hartuta (eskola-kirola foru aldundien eta udalen esparrupekoa da), eremu zehatz batean eragitea erabaki da: kirol federatuan aritzen diren 18 urte bitarteko gazteen entrenatzaileen prestakuntzan eragingo da, entrenatzaile-ikasketak euskaraz egin ahal izan ditzaten; horrez gain, jokalarien hizkuntza-aktibazioan eragiteko estrategiak emango zaizkie modulu berezitu bidez.

Izan ere, entrenatzaile horiek dira gazteen ohitura linguistikoaren gidariak eskolaz kanpo, eta beharrezkoa da gidariok bidelagun izatea euskararen erabileraren aktibazio bidean. Horretarako prestakuntza integrala da gakoa: dagoeneko elebidun diren entrenatzailegai euren kirol-esparruko prestakuntza

euskaraz jasotzeko aukera izan behar dute; hori jokalaria gazteen erabilera sustatzeko nahikoa ez izanik, hizkuntza-aktibaziorako estrategiak eman behar zaizkie oraingo zein etorkizuneko entrenatzaileei. Beraz, plan honek prestakuntza integrala du tresna nagusi: entrenatzaile-ikasketak eskolako hizkuntzan jarraitzeko aukera izango du hartzaileak, eta horrekin batera hizkuntza horren erabilera sakontzeko baliabideak jasoko ditu. Horiek horrela, planaren prestakuntza ekintzetarako sarbideari dagokionez, lehentasuna emango zaie oinarrizko mailetan, hau da, kategoria baxuenetan aritzen diren entrenatzaileei, objektiboki horiek baitira hizkuntza-ohituretan eragiteko abagune aproposenetan daudenak.

Plan honen diagnosiaren arabera, kirol entrenatzaile erdiek baino gehiagok ez dute eskatzen dieten entrenatzaile-prestakuntzarik, eta ikastaro horiek euskaraz egiteko aukera oso-oso mugatua da. Ondorioz, eta aurki ezartzekoa den kirol-lanbidearen legeak kontratupeko entrenatzaileei titulu ofiziala eskatuko diela kontuan izanda, euskarazko prestakuntzaren eskaintza lur emankorra izan daiteke kirolean euskara aktibatu eta sustatzeko bidean.

## 1.1. AURREKARIAK

Orain arte foru aldundiek eta udalek kirolean euskara sustatzeko burutu dituzten egitasmoek zerrendan aipatutako beste hiru norabideak landu izan dituzte bereziki: federazioetako langileen euskara klaseak diruz lagundu, klubetan euskara planak sustatu (batik bat hizkuntza-paisaia eta zerbitzu-hizkuntzaren arloak) eta esku-hartze puntualak egin aldekotasuna agertu duten klubetan (*Dereduko kirola* egitasmoa). Nabarmentzekoa da Arabako Foru Aldundia aitzindari izan dela federazioetako kideen euskalduntzean zein euskara planen sustapenean.

Honakoa zioen Dorleta Ugalde Usandizaga Eusko Jaurlaritzako kirol teknikariak 2016ko Udaltopen: “Gaur egun kirol formakuntza eskaintza euskaraz mugatua da. Unibertsitatean formakuntza euskaraz eta erdaraz eskaintzen da (Irakasle-eskola eta Jarduera fisiko eta kirol fakultateetan). Kirolene da kirol arloko irakaskuntza bereziak eskaintzen dituen ikastetxe ofizial publiko bakarra EAEn, eta ia eskaintza osoa erdaraz da. Federazioek oso eskaintza gutxi egiten dute euskaraz (Gipuzkoako surf federazioak adibidez, formakuntza deialdia euskaraz eta erdaraz egiten du). Udalek, batzuetan, enpresak kontratatzen dituzte entrenatzaileei saioak euskaraz emateko (Getxoko Udala, adibidez). Arabako Foru Aldundiak baditu gidak, bai gimnasioetan fitnessa euskaraz egitekoak, baita eskola-kirola euskaraz lantzekoak ere. Baina orokorrean, ekintza puntualak dira”. Orduz geroztik pausoren bat gehiago eman bada ere, entrenatzaileentzako euskarazko kirol prestakuntza urria da eta sistematizatu gabe jarraitzen du.

Salbuespenezko ekimen horietarik nabarmentzekoa da Beasaingo Udalak bertako klubak laguntzaz burututakoa: Kirolene kontratatu zuten asteburu batzuetan futbol eta saskibaloia entrenatzaile ikastaroak emateko, euskara hutsez. Ikasleak ordaintzen zuen Kiroleneko matrikula, baina ondoren dirulaguntza jasotzen zuen, eta ikastaroak hizkuntza bakarrean ematen ziren: euskaraz. 2015ean Debagoienako Mankomunitateak antzeko ekimena bultzatu zuen Arrasaten, kasu hartan futbol entrenatzaileei zuzendua.

Materialgintzari dagokionez, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kirola Euskaraz webgunea erreferente sendoa da. Bertan hainbat kirol buruzko fitxak eta entrenatzaile-gida batzuk aurki daitezke, baina materiala eguneratu gabe dago.



## 2. OINARRIZKO DIAGNOSTIKOA

### DIAGNOSTIKO KUALITATIBOA

Kirolean euskara sustatzeko plan honen diagnostikoa egiteko hainbat dokumentu eta azterlanetan oinarritu gara. Horietako batzuek izaera soziolinguistiko argia dute (*D ereduko kirola, Gu Gazteok, Gipuzkoako Futbol Kluben egoera-2019*), betiere kirolaren esparrua aztergai izanda. Diagnosiak ondorio argi batera garamatza: euskararen erabilera aktibatzen esparru aproposa da kirol-entrenatzaileena; entrenatzaile gazteak elebidunak dira, euskaraz ikasketak egindakoak dira, eta ez dago kirol-entrenatzaileen euskarazko prestakuntza eskaintzarik.

Hori dela eta, atal honetan ondorio garrantzitsuenak laburbilduko ditugu:

- **Euskadiko gazteak musikazale eta kirolari dira:** kirola arrunki egiteak (gutxienez astean hirutan) gora egin du gazteen artean. Mutilek batez ere futbola edo areto-futbola praktikatzeko dituzte, piskanaka praktikok behera egin badute ere; halaber, korrika egiten dute edo gimnasia joaten dira (mantentze-gimnasia, muskulazioa eta abar egitera). Neskek nahiago izaten dituzte gimnasio-jarduerak, korrika egin, aerobika, zumba edo antzekoak eta ibiltzea (*Euskadiko Gazteak azterketa, 2016*); kirol federatuari dagokionez, emakume gehienak saskibaloian aritzen dira.
- **Eskolatik kanpo gaztelania nagusi:** Azterketa soziolinguistikoek ez dute gaztetxo eta gazteen hizkuntza erabilerari buruzko zalantzarako tarterik uzten: eskola den eremu formaletik kanpo, gazteak gaztelaniaz aritzen dira elkarrekiko harremanetan. Ez dago kirol federatuan gazteek dituzten hizkuntza-ohituren gaineko azterketa kuantitatibo espezifikorik, baina kirolaren eta euskararen arteko harremana aztertzen duten ikerketa kualitatiboek zera adierazten dute: jokalaria gehienbat gaztelaniaz harremanetan dira haien artean (betiere eremu soziolinguistikoaren arabera); entrenatzaileekin, berriz, euskaraz egin ohi dute (*VI. Inkesta Soziolinguistikoa eta EAS*).
- **Futbolaren presentzia orohartzaileak lotura gutxi euskararekin:** gazte askok kirola egiten dute, mutilen artean futbolarik kirola gaintzen duen dimentsioa hartzen du, eta gazteek pilota eta arrauna lotzen dituzte euskararekin, ez futbola. Ia mutil guztientzat oso garrantzitsua den praktika da, eta futbolariekin lotuta jaso diren hizketaldi, esamolde, antzezpen eta bestelako erreferentzia guztiak gaztelaniaz izan dira. Nesken artean kirol praktika ohikoa da baina ez hain orokorra eta aniztasun handiago dago. (*Gu Gazteok. 12-14 urteko gazteen hizkuntza egunerokotasunera hurbiltzeko ikerketa partehartzailea*).
- **Kirola, eskola eta kalearen arteko zubia:** entrenatzaileak erreferente linguistiko argiak dira, eta asko egin dezakete euskararen erabilera sustatzeko. Kirolean bi plano linguistiko ezberdintzen dira: entrenatzaile-jokalaria harremana euskaraz (*front stage*), jokalarien artekoa gaztelaniaz (*back stage*). Kirolak, eta zehazki klubek eta entrenatzaileek, bi plano horien arteko aldea txikitzen lagun dezakete (*D ereduko kirola*).

- **Talde-kirolen ezaugarri linguistikoak, ezin aproposagoak:** Komunikazio egokia funtsezkoa da talde-kiroletan, partidak irabazteko abantaila eman baitezake. Horrez gain, esaldi laburrak eta emozioak dira nagusi, kirol terminologia euskaraz gero eta landuagoarekin batera. Entrenamenduetako giro jostaria aproposa da lanketa linguistikorako, eta entrenatzailearen azalpen uneez gain, komunikaziorako hainbat aukera ematen ditu: jolasak egiterakoan, materiala jasotzeko unean, luzatze-ariketetan eta lehiakideak agurtzeko garaian, etab. Ezaugarri horiek aproposak izan daitezke gazteek hizkera informalean dituzten gabeziak estali zein kode-nahasketa etengabeari irtenbidea emateko garaian (*D ereduko kirola*).
- **Zenbat eta maila altuagoa, orduan eta euskara gutxiago jakin eta erabili:** 2019an Gipuzkoako futbol klubetan egindako azterketa batek argi adierazten zuen zenbat eta maila altuagoa izan, orduan eta gutxiago erabiltzen dela euskara jokalaria zein entrenatzaileen artean. Gauza bera gertatzen da euskararen ezagutzarekin, baita entrenatzaileen prestakuntza gabeziarekin ere: kategoria baxuenetan daude euskara maila altuena dutenak (gazteak eta ikasketak euskaraz egindakoak) eta euskararekiko aldekoenak direnak, baina hain justu horiek dira kirolean prestakuntza falta nabarmenena dutenak. Jokalarien hizkuntza profila, berriz, euskalduna eta euskararen erabileraren aldekoa da, eta klub gehienak aurrerapausoak ematearen aldekoak dira (*Gipuzkoako Futbol Kluben egoera-2019*).
- **Emakumezkoek osatutako taldeetan elebidun gehiago dago, eta ezagutza maila altuagoa da.** Emakumezkoen taldeetan gizonetzkoetan baino handiagoa da elebidun kopurua. Horrez gain, emakumezko entrenatzaileen hizkuntza gaitasuna gizonetzkoena baino altuagoa da, batez ere emakumezkoen futbolearen aritzen direnen entrenatzaileena. Sektorea feminizatzeak euskararen presentzia eta erabilera areagotuko lituzkeela uste dute klubetako ordezkariak (*Gipuzkoako Futbol Kluben egoera-2019*).
- **Kirol lanbidearen legeak euskararen aukerak zabalduko ditu.** Orain arte kirolaren inguruko gradu ikasketek eta Kirolen emandakoek baino ez dute bermatu izan euskarazko irakaskuntza. Eusko Legebiltzarrean tramitatzen ari diren Kirol Lanbidearen Legeak, baina, aukerak zabaltzen dizkio euskarazko irakaskuntzari, kirol zuzendari, entrenatzaile eta begiraleei tituluak eskatuko zaizkielako, besteak beste. Horrek kirolean euskara sustatzeko aukerak areagotzen ditu.
- **Kirol entrenatzaileen prestakuntza falta, nabarmena.** Kirolean ari direnen %61ek ez du eskatutako prestakuntzarik. Kualifikazio aldetik datuak oso kezkarriak dira: entrenatzaile-monitore gisa ari direnen %61ek ez du eskatutako prestakuntzarik, eta kirol federatuan %63,3k ez du izan beharko lukeen prestakuntzarik (*EAEko kirol arloko giza baliabideen lan egoerari eta kualifikazioari buruzko azterlana*, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2016).
- **Egonkortasunik gabeko sektorea.** Azpi kualifikazio maila altuko sektorea da, eta profesionalizazio maila baxukoa. Jarduera-aniztasuna nabarmena da, profesional askok lan bat baino gehiago dute. Errotazio-maila nabarmena da, eta lanbidea erabat maskulinizatuta dago, %27 soilik dira emakumezkoak (*EAEko kirol arloko giza baliabideen lan egoerari eta kualifikazioari buruzko azterlana*, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2016).
- **Kirol federatua, gainbeheran.** Azterketen arabera, gero eta gehiago dira kirola aisialdi ekintza legez praktikatzen dutenak, ez konpetizio gisara. Federatu-kopuru handiena duten kiroleko batzuk aisialdikoak dira, ehiza, golfa eta bela, adibidez. Emakumezkoek ez dute kirol federatuarekiko aparteko interesik, ez dira lehia-kirolaren zaleak.

## DIAGNOSTIKO KUANTITATIBOA

Atal honen irakurketari ekin aurretik, komenigarria da honako argibide hauen jakitun izatea:

- Kirol mota bakoitzeko lau federazio daude EAEn: lurralde historiko bakoitzekoak eta euskal federazioa. Ondorioz, EAEko kirol erakundeen erregistroak 49 euskal selekzio biltzen ditu gaur-gaurkoz, eta horri lurraldeetakoak gehitu behar zaizkio.
- Kirol federatua *inpasse* egoeran dago, ez aurrera ez atzera. Azterketen arabera, gero eta gehiago dira kirola aisialdi ekintza legez praktikatzan dutenak, eta kirol federatiboen fitxa kopuruek ez dute gora egin azken urteotan. Horrez gain, federatu-kopuru handiena duten kiroleko batzuk aisialdi esparrukoak dira, hala nola ehiza, golfa eta bela.
- Azterketa kuantitatiboa ez dago guztiz osatua, egiteko horretan hainbat zailtasun aurkitu baititugu bidean: kasu batzuetan kirol federazioetako datuak eskuratzeko zailtasunak, kirol federatuan zein eskola-kirolean fitxak eta jokalarikopuruak zenbatzeko irizpide eta sistematika ezberdinak, datuak batzeko formatu elektronikoen arteko bateragarritasun eza... Ondorioz, eskuratuakotako datu guztiak eranskinean jaso dira, baina dokumentu honetan lagin txiki eta adierazgarria ematera mugatuko gara.
- Plan hau diseinatzean 2019-2020 ikasturteko datuak aztertzea erabaki da, 2020-2021 denboraldikoek baino irudi errealistagoa eman dezaketelakoan; izan ere, azken denboraldi horretan fitxa federatiboen behera egin dute Covid-19aren eraginez, kopuru eta estatistika distortsionatuak eraginez.

### EAEKO LIZENTZIA FEDERATIBOAK KIROLAREN ARABERA\*

KIROLA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
Futbola	25.297	3.202	28.499
Txirrindularitza	7.811	317	8.128
Saskibaloia	4.521	3.440	7.961
Igeriketa	1.932	1.472	3.404
Eskubaloia	2.578	1.340	3.918
Surfa	2.783	562	3.345
Atletismoa	1.771	1.189	2.960
Triatloia/Duatloia	1.959	319	2.278
Arrauna	1.988	709	2.697
Pilota	2.206	208	2.414
Errugbia	1.553	277	1.830
Boxeoa	938	427	1.365

Goiko taula hori are gehiago zehazteko, hona hemen, adibidez, 2019-2020 denboraldiko Bizkaiko fitxa federatiboen emaitza zehatza:

KIROLA 2019-2020	Kadeteak		Jubenilak		Seniorrak		Profesionalak		Guztira	
	emak.	giz.	emak.	giz.	emak.	giz.	emak.	giz.	emak.	giz.
Futbola	305	4.165	319	4.089	525	4.021	43	211	1.192	12.486
Saskibaloia	778	638	511	593	711	1.268			2.060	2.499
Igeriketa (waterpolo gabe)	127	31	174	105	88	98			389	234
Eskubaloia	229	142	192	173	278	650			699	965
Surfa	28	53			187	987			215	1.040
Atletismoa	159	119	158	126	207	573			568	818
Triatloia	8	30	4	25	42+43*	274+303*			97	632
Arrauna	107	144	61	112	112	416			280	672
Pilota	14	140	10	98	72	608			96	846
Errugbia	33	135	**	137	120	364			153	636
Boxeoa	34	102	96	215	378	182			312	695

\* Baturaren bigarren aldagaia kirolari beteranoen fitxak dira

\*\* Egon badaude maila horretako jokalariek, baina beren fitxa kopurua ez da azaltzen Bizkaiko Errugbi Federazioak bidalitakoen artean.

Eskola-kiroleko datuek, berriz, fitxa askoz gehiago erakusten dizkigute, baita euskarazko jardunaren perfil osatuagoa ere. Alabaina, kirol federatuan gertatu bezala, neurketa ezberdinek zaldu egiten dute lurraldeen arteko alderaketa. Ondorioz, eskola-kirolekoa aztertzeke ere Bizkaian jarriko dugu azpimarra.

#### ESKOLA-KIROLEKO PARTE-HARTZAILE KOPURUA BIZKAIAN (2019-2020), JARDUERA HIZKUNTZAREN ARABERA

Lurraldea	Jarduera euskaraz		Jarduera euskaraz eta gaztelaniaz		Jarduera gaztelaniaz	
	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak
Bizkaia	4.344	6.577	7.861	15.165	1.725	911

#### ESKOLA-KIROLEKO PARTE-HARTZAILE KOPURUA BIZKAIAN (2019-2020), JARDUERA HIZKUNTZAREN ARABERA

Lurraldea	Jarduera euskaraz		Jarduera euskaraz eta gaztelaniaz		Jarduera gaztelaniaz	
	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak
Bizkaia	4.344	6.577	7.861	15.165	1.725	911

Lehen taulan argi azaldu bezala, Bizkaian eskola-kiroleko jarduna euskararen aldekoa da, euskara hutsezko jarduna eta elebiduna kontuan hartuz gero. Bizkaiko eskola-kiroleko monitoreen hizkuntza-gaitasunari buruzko koadroak, baina, beste ikuspegi bat azaleratzen digu: monitoreen %25,2k ez du euskarazko gaitasun osoa.

## 2.1. ERAKUNDEETAKO ERAGILEEN IRITZIAK

### 2.1.1. Jarduera Fisikoa eta Kirolaren Zuzendaritza

Plana prestatzeko garaian harreman zuzena izan dugu Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzarekin. Hain zuzen ere, Kirolaren Euskal Eskola izan dugu solaskide nagusi, zehazki zentro horren arduraduna. EAE mailan, Kirolaren Euskal Eskola arduratzen da entrenatzaileen prestakuntzari dagokion ikuskaritzaz.

Hona hemen kirolean euskararen erabilera bultzatzeko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak HPSri iradokitako ildo-estrategikoaren puntu nagusiak:

- Euskarazko prestakuntza sustatzeko ekintza positiboaren printzipioa baliatu behar da. Teknologia berriak erabiliz, kirol-federazioei prestakuntza-baliabide erakargarriak eskaintzea da HPS kirol munduan adostasunez barneratzeko modurik eraginkorrena. Gainera, egon badago horren beharra kirol-formakuntzan, eta transformazio digitala euskararen alde erabiltzea aukera ona da.
- Pizgarriak ematearen alde, ez euskarazko ikastaroak derrigorrez ezartzearen alde. Horretan datza kirol munduarekiko hurbilpen prozesuaren gakoa. Hori dela eta, bloke komuneko ikastaroak euskaraz egiten dituztenei matrikula ez kobratzeko aukera nabarmendu dute.
- Federazioek baliabide eskasak dituzte: berez formakuntza garestia da, eta ele bietan egindako formakuntza are garestiagoa. “Gaming” formatuaren antzeko zerbait erakargarria eskaintzea litzateke bidea.
- Material hori euskaraz erabiltzeko eta euskaraz sortua litzateke, itzulpena saihestuz. Gaur egun liburuek eta itzulpenek eragin gutxi eta bide laburra dute.
- Kirol-federazioek hizkuntza-estrategien gaineko moduluak txertatzea egingarria da.
- Kirolaren Euskal Eskolaren helburua: lehen mailako bloke komuna euskaraz ematea.
- Orain arte soilik bi entrenatzaile-ikastaro egin dira osorik euskara hutsez, Kirolaren Euskal Eskolako esanetan: surf eta arraun ikastaroak, biak ala biak Gipuzkoan. Antza, ikastaro horiek udal bateko euskara zerbitzuaren bitartez bideratu ziren.

### 2.1.2. Hezkuntza Saileko Kirolene kirol irakaskuntzen ikastetxe publikoa

Hezkuntza Saileko Kirolene ikastetxea da araubide bereziko kirol irakaskuntzaz arduratzen den EAEko zentro publiko bakarra. Arlo horretan on-line irakaskuntza emateko baimenak esleitzen dituen EAEko zentro bakarra ere bada.



Hona hemen kirolean euskara sustatzeko planaren kariaz Kironaleko arduradunekin egindako bileran nabarmendu zituztenak:

- Kirola ezin da futbolera mugatu, hori baino askoz gehiago da. Ondorioz, kirolean euskara sustatzeko plan batek futboletik haratagoko kirol esparruak hartu beharko lituzke kontuan.
- Egon badago entrenatzaile ikastaroak euskaraz egiteko eskaintza eta eskaria. Kontua da ikastaroak antolatzerako orduan federazioen mugikortasuna murriztea dela.
- Kirolean arazoa ez da ez dagoela entrenatzaile euskaldun kualifikaturik, baizik eta esparru batzuetan ez dagoela euskaraz aritzeko ohiturarik.
- Kirolen euskaraz eskaintzen du prestakuntza ia guztia. Kontua da taldeak osatzeko ratioak direla eta, batzuetan ikasle euskaldun eta erdaldunek era mistoan osatzen dituztela taldeok, eta horrek ezinezko egiten du ikastaroa euskara hutsez garatzea.
- Kiroleneko irakasle asko euskaldunak dira eta klaseak euskaraz ematen dituzte, baina horietako batzuek gaztelaniaz egin zituzten ikasketak beren sasoiak, eta euskara ahoz darabilte. Futbolean eta saskibaloian, adibidez, irakasle gehienak euskaldunak dira eta euskara darabilte; neguko kirolean, berriz, irakasleak euskaldunak dira baina taldearen ezaugarriek (sarritan talde txikiak eta linguistikoki mistoak, ikasle asko beste erkidego batzuetakoak izaten baitira) zaildu edota ezinezko egiten dute ikastaroak euskaraz izatea.
- Kiroleneko orain arte euskara teknikoak eskaini izan du zenbait modulutan, adibidez mendiko entrenatzaile ikastaroetan.
- Kiroleneko arduradunek begi onez ikusiko lukete aipatutako irakasgai hori entrenatzaileak hizkuntza-estrategietan trebatzeko ikastaro batek ordezkatzeko. Egon badaude horretarako aukerak: moodle plataformako irakasgaiak, klase semipresentzialak...
- Kiroleneko arduradunak prest azaldu dira irakasleek hizkuntza-aktibazioko estrategien gaineko trebakuntza jasotzeko, gero haiek aktibazioa aurrera eraman eta aldi berean ikasleak hizkuntza-estrategietan trebatzeko. Gai honi dagokionez, beste aukera bat ere plazaratu dute: hizkuntza-estrategien gaineko irakasgai bat sortu, baita horretan arituko litzatekeen langilearentzako lanpostu-plaza ere; horrela, federazioei ere eskaini ahal izango liekete hizkuntza-estrategien gaineko trebakuntza. Kasu horretan, Hezkuntza Sailak hartuko luke lidergoa.
- Kiroleneko begi onez ikusten du egitasmo honen balizko ekintzetako bat: federazioei euren ikastaroetako materiala euskaratzen laguntzea, gero ikastaroak euskaraz emango badira.
- Ikasleek ikastaroak euskaraz egin ditzaten, ekintza positiboaren bideak ibiltzeari positiboa deritzote: zenbait erakundek laguntza bereziak eskaintzen dizkiete ikasleei, adibidez, ikasketa guztiak ordaintzea behin ikastaro horiek gaindituta.
- Kirol mundua euskalduntzeko funtsezkoa deritzote lidertza linguistikoak sendotu eta hizkuntza-ohiturak astintzeari. Zentzu horretan, euskara hutsezko kirol lehiaketa bat antolatzea proposatu dute.

- Kirolene Film laburmetraien lehiaketan euskarazko sari berezitua ematen dute urtero. Zentzu horretan, funtsezkoa deritzote euskarazko kirol hedabideak garatzeari: Bizkaiko *Cantera Deportiva* egunkariaren antzeko zerbait (azpiko mailetakoko forofoei zuzendua gehienbat), kirolak bakarrik landuko dituen euskara hutsezko irratia librea, etab.
- Diagnosiari txertatzeko ohar bat egin dute Kirolenetik: ikastetxe pribatuek kirol klub propioak izaten dituzte, bai eta kirol egitura eta azpiegitura garatuak ere (normalean soin-hezkuntzako irakaslearen ardura izan ohi da kluba); aldi berean, ikastetxe publikoetako gazteek hornitzen dituzte herri eta auzoetako klubak.

### 2.1.3. Aldundien iritziak

HPS hiru foru aldundiekin batu da, berebizikoa iruditu baitzaigu urteotan erakundeok kirolaren arloan pilatutako esperientziaren berri izatea. Aldundiek eskola-kirolaren sistema egituratu eta dinamizatzen dute; horrez gain, klubekin eta lurraldekako federazioekin ere lan eskergea egindakoak dira. Nabarmentzekoa da hiru foru aldundiek Kirolaren Lan Mahaia delako egitura sortu eta garatu dutela Nafarroako gobernuarekin batera.

#### 2.1.3.1. Arabako Foru Aldundia

HPS Arabako Foru Aldundiko (hemendik aurrera AFA) Euskararen Foru Zerbitzuarekin bildu da. Kirol-federazioetako langileak euskalduntzeko dirulaguntza-ildoak du AFAk, baita klubetan euskara planak sustatzeko *Marka eta Erronka* egitasmoa ere. Hona hemen AFAREN lan-lerro nagusiak eta kirolean euskara txertatzeko estrategien gaineko gogoetak:

- Euskara planak bultzatu dituzte federazioetan eta klubetan, Gasteizko Udalak klubetan. Kirolaren bidez praktika-komunitateak sortzea eta horien jarraipena egitea da helburua, eta kasu horretan aholkularitza lana da AFAREN egitekoa.
- Hitzaldi didaktikoak antolatzen dituzte, hala nola entrenamenduak hobetzeari dagozkionak.
- Aktibazio-hitzaldiak antolatzen dituzte unibertsitatean (Magisteritzako fakultatean zein Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako fakultatean, hain zuzen ere) eta hezkuntza-zentro espezializatuetan (Mendizabala institutuko Gizarte eta Kirol Animazioko zikloan).
- AFDA Arabako kirol-federazioen elkartearen bitartez aktibatu zuten Euskaraldia 2020 kirol esparruan.
- Amurrion lanketa berezia egin du Udalak hitzarmen bidez: bi urtean benjaminak euskaldundu, gero benjaminak eta alebinak; horrekin batera, denbora nahikoa ematen diote entrenatzaileari talde berarekin kirola eta euskara lantzen jarrai dezan.
- Hiru foru aldundiek eta Nafarroako Gobernuak osatutako *Kirolaren Lan Mahaiari* harraminta oso ona deritzote.
- Begi onez dakusate titulu ofizialaren kurrikulumean euskara estrategien modulua ezartzea.

### 2.1.3.2. Bizkaiko Foru Aldundia

Bizkaiko Foru Aldundiari (aurrerantzean BFA) dagokionez, HPS Euskara, Kultura eta Kirol Saileko aholkulari orokorrarekin eta Euskara Zerbitzuko arduradunekin bildu da. Hona hemen BFaren lan-lerro nagusiak eta kirolean euskara txertatzeko estrategien gaineko gogoetak:

- Federazioen hizkuntza-paisaia eta zerbitzu-hizkuntzaren gaia aurreratua du BFAk. Izan ere, ASFEDEBI Bizkaiko Kirol-federazioen Elkarteak itzulpen zerbitzua du, eta horren bitartez ele bietan dago kirol-federazio ia guztien -bost dira oraindik programan sartu ez direnak- mezularitza eta kartelgintza.
- *Bizkaian Kirola ere Euskaraz* (BIKEE) egitasmoa dute martxan. Programaren helburu nagusia lurraldeko kirol sisteman euskararen presentzia handitzea da, eta kirolaren bidez euskararen erabilera soziala sustatzen du adin goiztiarretatik hasita. Egitasmoaren lehen urratsa federazioen barruan euskararen erabilera sustatzea izan zen, eta bi urte eman zituzten langileak euskaraz trebatzen. Bigarren fasean, berriz, Bizkaiko kirolean ari diren eragile guztiak inplikatzeko dute helburu, batik bat klubak. Goitik beherako eredua da, federazioetatik klubetarakoa, eta eredu hori sustatzen jarraituko dutela adierazi du.
- Arazo nagusia eskola-kiroleko entrenatzaileen mugikortasun altuan datza: hiru urterik behin entrenatzaileen %70 aldatzen da (entrenatzaileen adinak eta lanaren ezaugarri prekarioek zerikusi handia dute).
- Azken hilabeteetan BFAk kirol-ohituren gaineko bi inkesta zehatz egin ditu eskola-kirolari dagokiona eta 16 urtetik gorako herritarrena. Ondorio soziolinguistiko nabarmenena: gimnasio eta kiroldegietan gero eta jende gehiagok eskatzen du euskarazko zerbitzua.
- BFA aitzindaria izan zen Euslider programa ezartzen, zeinak Udako Kirol Campusaren bidez kirol klubetako hizkuntza-liderrak detektatu eta horiekin lanketa berezia egitea baitzuen helburu.
- Eskola-kiroleko oinarrizko ikastaroa (MADE) euskara hutsez eskaintzen dute. Salbuespenen bat ere egin izan dute euskara ez dakitenek ere egin ahal izateko, baina ohikoa euskaraz soilik ematea da (ikastaro batean 108 pertsona matrikula izatera iritsi dira).
- Herri Kirolen ikastaroa osorik ematen dute euskaraz.
- Kirol Lanbidearen Legeari dagokionez, garrantzia handia ematen diote euskaraz ez dakiten federazio zein klubetako langileen jarraipen eta egokitzapen mailakatuari. Planifikatu beharrekoa da aipatutako langileok euskararen munduan txertatzeko modua.
- Irakasleak gako dira euskarazko entrenatzaile ikastaroak bultzatzeko orduan, horiek ere trebatu beharko liriateke.
- HPS-k sustatu nahi duen plan zehatz honi begira, berau babestu eta osatzeko prest dago BFA.

### 2.1.3.3. Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokionez (aurrerantzean GFA), Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritzarekin bildu da HPS. Besteak beste, erakunde biek parte hartzen dute *Euskara Kirolkide* egitasmoan,

zeinaren bultzatzaile nagusia izan zen GFA 2015 inguruan. Egitasmo horrekin batera, kirol arloko hitzarmengintza estrategikoan zein klubentzako hizkuntza-estrategien trebakuntzan aritzen da GFA buru-belarri. Hona hemen GFAREN lan-lerro nagusiak eta kirolean euskara txertatzeko estrategien gaineko gogoetak:

- Ezinbestekoa irizten diote eskola-kiroleko entrenatzaile eta monitoreen prestakuntza euskara hutsez izateari, euskarazko formazioak berez dakarrelako erabilerarako pausoa.
- GFAN kirol ikastaroak elebietan eskaintzen dira, baina euskarak du beti lehentasuna.
- Gipuzkoako kirol ereduari dagokionez, Kiroleko Lan Mahaia osatu dute udaletako euskara eta kirol teknikariekin. Horrez gain, Udalekin Gipuzkoako euskara teknikarien foroan ere landu ohi dute gaia. Kirolean euskara sustatzeari dagokionez, udaletako euskara teknikariek Aldundiari asko lagundu diotela aipatzen dute GFAko teknikariek, horiek baitira klubekin zuzenean lanean ari direnak.
- Aldundiaren Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza entrenatzaileak euskararen erabileraren esparruan formatzeaz arduratzen da. Entrenatzaileen euskarazko formakuntza orokorreko kontuetan ez dira sartu orain arte, baina arlo horretan hutsune nabarmenak daudela iruditzen zaie.
- Hitzarmengintza asko landu du GFAk, euskara sustatzeko lankidetzak hitzarmenak dituzte klubekin eta federazioekin.
- Eskola-kiroleko entrenatzaile eta monitoreen euskara gaitasuna bermatuta dago Gipuzkoan; ondorioz, orain erabilera aztertzen ari dira.
- Kirol-eskola dute hurrengo erronka, hutsune nabarmenak atzeman baitituzte, entrenatzaileen gaitasunetik hasita. Kirol eskoletan klubek jartzen dituzte baldintza linguistikoak, ez Aldundiak. Hizkuntza Berdintasuneko euskara teknikariei iruditzen zaie eskolan ikasten dena desikasten dutela gazteek kirol-eskolan.
- GFAko arduradunen esanetan, kirol-federazio batzuek ez dute “busti” nahi euskara kontuetan, ematen dituzten pauso apurrak udalek egindako presioaren eraginez izaten dira.
- Kirol arloaren eta euskara arloaren arteko lankidetzak ez ohi da erraza izaten, nork bere lehentasunak dituelako. Hala eta guztiz ere, euskara kirolean txertatzeko ezein egitasmok koordinazio mota berezia behar dutelakoan daude: batzorde misto bat eratu beharra dago, euskara teknikariak eta kirol teknikariak bilduko dituenak.
- GFAkoen ustez, kirol-federazioekin formakuntza arloan adostu beharreko hitzarmen orok implementazio-baldintzak izan behar ditu oinarri: itzulpenak eta berariazko materiala alferrikakoak izan ez daitezkeen, kirol-federazioek ikastaroak euskaraz emateko prestatuta dauden irakasleak izan behar dituzte, eta hala dela frogatu inplementazio-plan zehatz baten bitartez.
- Kirolaren gaineko material asko gaztelania hutsez dago.
- Udalekin foroaren ekimenez, Soziolinguistika Klusterrak eskola-kiroleko partidetan euskararen erabilera neurtzeko metodologia bat sortu du. Kale-erabileraren neurketaren moldaketa bat

prestatu du, partidetara eramana baina entrenamenduetarako ere balio duena. APPa ere badute, baina pandemiaren eraginez 2020an ez dute metodologia berria testatzeko aukerarik izan.

- Entrenatzaileei hizkuntza-estrategiak ematea funtsezkoa da.

## 2.2. ADITUEN IRITZIAK

Kirol irakaskuntzako eragile publikoen iritziarekin batera, egunez egun entrenamendu zelai eta kantxetan euskara sustatzen aritzen diren eragileen iritzia ere jaso du HPSk. Iritzi kualifikatua, aditu hauek baitira kirol elkarte eta entrenatzaileen beharrianetara hurbiltzen gehien lagun diezaguketenak. Kasu honetan arlo ezberdinetako adituengana jo dugu aholku bila: entrenatzaileak, entrenatzaileen irakasleak, kirol metodologian adituak, kirol psikologoak, eskarmentu handiko euskara-aholkularitza enpresak, federazioetako kideak etab.

### 2.2.1. Gari Fullaondo

Gari Fullaondo kirol metodologian aditua da. Sei urte eman zituen Athleticeko metodologia zuzendari, eta hamabost urtez aritu da eskolak ematen Bizkaiko futbol federazioko entrenatzaile eskolan. Entrenamenduen gaineko liburu baten egile ere bada, eta gaur egun Kimet Sport kirol metodologiako empresa kudeatzen du. Kirolean euskara sustatzeko asmoz Getxoko Udalarekin batera antolatutako *Pasa baloia* ekimenaren kudeatzailea ere izan zen Fullaondo irakasle ohia. Hona hemen gaiaren inguruan emandako iritzirik nabarmenenak:

- Entrenatzaileek ez dute soilik formakuntza behar, eguneroko zereginetarako metodoa eta hori aplikatzeko bideak behar dituzte. Formakuntza garrantzitsua da eta kudeatu egiten da, baina tresnak dira funtsezko.
- Neskak entrenatzeko metodologia berezitua ere behar da.
- Gure kirol ereduan entrenatzaileek aisialdira zuzendutako kirol-metodologia ere behar dute. Kirolaren kudeaketa formala zein informala, biak behar dira.
- Hezkuntza sistema paraleloa da kirola.

### 2.2.2. Josu Zubia, Iñigo Letamendi eta Beñat Larrañaga

Gipuzkoako Futbol Federazioak bere formakuntza eskaintzan euskara txertatzeko apustua egin berri du. Erakunde horren partetik Josu Zubia entrenatzaile eskolako zuzendaria, Iñigo Letamendi idazkari nagusia eta Beñat Larrañaga lehendakariordea izan dira solaskideak. Honako hauek dira gaiaren inguruko beren iritziak:

- Entrenatzaile-eskolan egon badago formakuntza eskaria, batik bat gazteenen multzoan, UEFA B eta UEFA C ikastaroetan hain zuzen ere. Aurten UEFA C-n, oinarrizkoa eta on-line ematen dena, 160 ikasletik gora izan dira, eta horietarik nahikotxok beren formakuntza UEFA B ikastaroa euskaraz eginez jarraitu dezaketelakoan daude. Ikastaro horiek euskaraz emanda, hastapenetan ari diren



entrenatzaileak euskaraz formatuko lituzkete; gainera, entrenatzaile horiek jokalaria gazteenekin aritzen dira. Federazioak izan badu UEFA B euskaraz emateko gaitasuna, badituzte horretarako hizkuntza aldetiko entrenatzaile kualifikatuak.

- Euskarazko ikastaroak aurrera eramanez gero, estatu espainiarrean gaztelania ez den hizkuntza batean entrenatzaile-ikasketak emango lituzkeen lehen federazioa litzateke Gipuzkoakoa. Izan ere, Katalunian ahozko azalpenak katalanez ematen dituzte, baina apunte guztiak gaztelania hutsez daude. Izan badute UEFA B euskaraz emateko gaitasuna.
- Prest daude euren ikasketetan hizkuntza-estrategiei buruzko moduluak txertatzeko, are beraz ikastaroko lehenengo ikasgaia izateko ere. Ondo irizten diote entrenatzaile-eskolako entrenatzaileak hizkuntza-estrategietan formatzeari ondoren haiek erabilerarako tresnen transmisioa egiteko, baina haien ustez interesgarriagoa da entrenatzaile gazteek adituen bitartez zuzenean jasotzea hizkuntza-estrategien gaineko trebakuntza.
- Federazioko zuzendaritza berriak euskararen aldeko lerro estrategiko bat zabaldu du. Hizkuntza kalitatea zaindu eta bermatu nahi dute, epaileetatik hasita.
- Larria deritzote epaileek euskara hain gutxi erabiltzeari, esparru oso erdalduna da. Epaileen hastapenetako formakuntza federazioak ematen duela kontuan hartuta, esparru horretan eragitea ere bada beraien asmoa.
- Nesken entrenatzaileen aldeko apustua ere egin du Federazioak, eta aurtengo UEFA C ikastaroko parte-hartzaileen %50 emakumezkoen futboleko entrenatzaileak dira.

### 2.2.3. Koikili Lertxundi

Koikili Lertxundi Athleticeko jokalaria ohia ezaguna da kirolean euskara sustatzeko egindako ahaleginarengatik. Lehen Itzarri Consulting eta orain Eusport aholkularitza enpresetan arduradun, Lertxundik kirola eta euskara uztartzea helburu duten hainbat egitasmo gidatu eta garatu ditu. Hona hemen gaiaren inguruan dituen iritziak:

- Titulua duten entrenatzaile gehienak elebidunak dira.
- Komeni da jubeniletara arteko entrenatzaileen profila aztertzea: edo karreraren bat ikasten ari dira, edota entrenatzaile ikasketetan ari dira buru-belarri astean lau egunetan.
- Entrenatzaile izateko funtsezkoa da ikastaroen bloke espezifikoak, hor jarri behar da arreta. Desoreka bat ematen ari da entrenatzaile ikasketetako blokeen artean: bloke espezifikoak ditu ordu gehien, baina ondoren arlo profesionalean okerren ordainduta dagoena da; bloke komunak, aldiz, ikasketa-ordu gutxiago ditu, eta arlo profesionalean ondoen ordainduta dagoena da.
- Gazteen kirolean funtsezkoa da parte hartzea eta lehia ezberdintzea, hor eragin behar da gehienbat.
- Gakoa da entrenatzaile ikasketak euskaraz egiten dituztenei matrikulan deskontua aplikatzea.
- Euskara kontuei dagokienez, entrenatzaile ikastaroa hasi aurretik esku-hartu behar da entrenatzailegaiekin. Horrez gain, funtsezkoa da entrenatzaile-eskolak eskualdeetara hurbiltzea.

- Kirolean euskara sustatzeko bide funtsezkoa da komunikabideena, eta zentzu horretan EITBk sekulako beherakada izan du. Gero eta futbol partida gutxiago ematen dituzte euskaraz, eta futbola da gazteak gehien erakartzen dituen.
- Eusko Jaurlaritzak eskumen bat bere ez egitearen ondorio da lurraldekako federazioen ikastaroekin dagoen arazoa, eta bide batez euskararekin dagoena.

#### 2.2.4. Estiñe Astorkia eta Leire Solozabal

Artez Euskara Zerbitzuak eskarmentu handia du kirolean euskara sustatzeko egitasmoei dagokienez. Hainbat kirol elkartetan dihardu euskara sustatzen erakunde publikoen enkarguz, eta *Euskara Kirolkide* egitasmoan ere parte hartzen du. [www.jokatu.eus](http://www.jokatu.eus) webgunea da Artezen lan-ildo horren emaitza esanguratsuetako bat. Plan honi buruzko saioetan Estiñe Astorkia eta Leire Solozabal izan dira Artezen solaskideak. Hona hemen gaiaren inguruko haien iritziak:

- Kirol klub eta entrenatzaileei zuzendutako hizkuntza-estrategien ikastaroei dagokienez, bide mistoa da aukeretako bat. On-line plataformaren bidezko ikastaroen bidez irakasleak jarraipena egin eta ikasleak jasotakoa praktikan jartzeko aukera du, eta eredu hori arrakasta handia izaten ari da. Halaber, gero eta gehiago dira hizkuntza-estrategien gaineko aurrez aurreko ikastaroak eskatzen dituztenak. Bi orduko iraupena duten sentsibilizazio-programak ere arrakasta izaten ari dira.
- Komeni da hizkuntza-estrategien gaineko ikastaroak taldean egiteko ariketak izatea, kirola taldean egiten baita.
- Ez dago arazorik epaileen lanera egokitzeko entrenatzaileen hizkuntza-estrategien gaineko ikastaroa. Horrez gain, epaileek euren arteko entrenamenduak ere egin ohi dituzte, eta hor ere eragin daiteke. Hizkuntza ezaugarriei dagokienez, kontuan hartu behar da kirolean epaileekiko tratuan botere harremanak eman ohi direla.
- Kirol mundura iritsi eta euskara gizartzeratzeko bideei dagokienez, webguneen eredia zaharkituta dagoela iruditzen zaie; gazteengana heltzeko APPak eta mugikorretarako aplikazioak garatu behar direlakoan daude.
- Euskara aldetik sustatu beharreko kirolei dagokienez, Euskal Herrian errugbia garrantzitsua dela deritzote: errugbi federazioak euskaldunagoak dira, askotan euskaraz egiten dute lan, eta hainbat faktoreren eraginez (tartean "Hirugarren Denbora" delakoa) errugbi jokalarien arteko harremana naturalagoa izan ohi da, ez hain lehiakorra. Beste alde batetik, nabarmena da neska gutxi aritzen direla errugbian. Atletismoan, berriz, taldeka entrenatu ohi dute, baina lehia indibiduala da guztiz. Plan honetan arrauna sartzeko, adibidez, kirolaren dimentsioa eta inpaktua neurtu beharko liritekeelakoan daude.

#### 2.2.5. Aritz Olagoi

Aritz Olagoi kirol psikologoa da ogibidez, eta zazpi urte daramatza kirol psikologia irakasten Gipuzkoako Futbol Federazioak antolatutako ikastaroetan. Euskara kirolean sustatzeko hainbat egitasmo propio sortu ditu, asko eta asko Kirolean enpresaren bidez, eta kirol entrenamenduetan euskara sustatzeko KES metodologiaren sortzailea da. 2015-2016 denboraldian ekin zion metodologia hori garatzeari

Añorga Kirol eta Kultur Elkartean, eta orduz geroztik 17 kirol elkartetan (130 talde baino gehiago) aritzen da euskara sustatzeko lanean. Horiekin egin beharreko lana bitan zatitzen du: jarraipen taldeak eta hastapen taldeak. Olagoik entrenatzaileentzako formazio eta erabileraren gaineko neurketak barne hartzen dituzten sustapen programak ere antolatzen ditu, eta EBETEn kirol arloko arduradun lanetan aritu izan da. Hona hemen aditu horren iritziak:

- Klub gutxi batzuek sartu izan dute euskararen erabileraren gaia elkartearen estatutuetan, adibidez Añorgak.
- Kirolaren desabantaila nabarmenenak finkotasun faltan daude: errotazio handia dago entrenatzaileen artean, eta klubaren antolaketa-egituran ere aldaketak eman ohi dira sarritan.
- Aplikagarritasunari garrantzia eman behar zaio kirol elkarteetan euskara sustatzeko garaian: garrantzitsua da kirol zuzendaritzetara jotzea, hortik entrenatzaileetarako pausoa eman dadin, baina ezin ahaztuzkoa da zuzendaritza-batzordeak, askotan horiek baitira klubaren komunikazioaren motorra. Kirol elkarteetan egin beharreko lana goitik beherakoa da batik bat.
- Pizgarri bat bilatu behar da entrenatzaileek euren ikasketak euskaraz egiteko; adibidez, euskaraz ikasteagatik matrikula merketzea. Hala ere, horren bideragarritasun legala aztertu beharko litzateke, atzerapausorik eman ez dadin. Pizgarri ekonomikoek izan badute euren arriskua.
- Bloke amankomuna euskaraz ikastea sustatu beharra dago.
- Entrenatzaile euskaldunen lan poltsa bat sortzeko beharra dago, ondoren klubei zerrendak helarazteko.
- Planak barne hartu beharko lituzkeen kirolei dagokienez, errugbia aukera interesgarria izan daiteke. Giro sanoa sortzen da kirol horretan, eta erraztasunak jartzekoak dira errugbi klubak.
- Linguistikoki interesgarria da entrenatzaile ikastaroak bailaraka antolatzea eta hor eragitea. Ekimen horrek lagundu egingo luke entrenatzaile gazteen arteko harremana euskaraz izaten, eta kontuan hartu behar da bailaretako entrenatzaile gazteek elkarren aurkako partida ugari izaten dituztela.
- Euskalgintzak lehentasuna eman izan dio kulturari, eta nolabait hankamotz gelditu da kirola, esparru antolatuko eremurik handiena bada ere.

#### 2.2.6. Aritza Escandon

Aritza Escandonek eskarmentu handia du kirolean euskara sustatzeko egitasmoei dagokienez. Blaika hizkuntza-aholkularitzako arduradun gisa, eremu erdaldunean euskara kirolean txertatzeko planak diseinatu eta garatu izan ditu 50 kirol elkarte baino gehiagorentzat. *D ereduko Kirola* egitasmoaren lehen fasean parte hartu zuen Escandonek, eta EBETEn kolaboratzailea izandakoa da. Horrez gain, futboleko hirugarren mailan diharduen Deustu futbol taldeko lehen entrenatzailea da Escandon. Hona hemen gaiaren inguruko bere iritziak:

- Euskara sustatzeko orduan funtsezkoa da klubetako zuzendaritza batzordeekin lan egitea. Sarritan urte asko daramate postu horietan, eta ez dute erreleborik. Askok eta askok, gainera, ez dute

harremanik euskararekin. Euskara planen inguruan modu errektiboan jokatzeko dute askotan: “etorri zarenez gero euskaraz egingo dugu”, baina ez dute horretan sinesten. Alabaina, zuzendaritza batzordeetan landu beharreko gaia da euskararena, funtsezkoa da eremu erdaldunearan. Klubetako kideen arteko euskarazko harremanak handitzea behar du planak helburu.

- Kirol elkarteek berez arazoak dituzte entrenatzaileak aurkitzeko orduan. Kirola minoritarioa bada, entrenatzaile tituluduna aurkitzea ez da erraza izaten. Futbolearen eta saskibaloian ere ez, baina beste arrazoi bategatik: klub batek entrenatzaile asko behar ditu. Normalean klubak entrenatzaile harrobi propioa sortu ohi du, bere burua elikatzeko.
- Ohiko entrenatzaile lanpostetan euskara ez da irizpide moduan erabiltzen. Horretarako ahoz ahokoa izan ohi da metodoa. Klubarentzat errazagoa da harrobian bertan aurkitzea entrenatzaile euskaldunak.
- Entrenatzaileen lanpostei dagokienez, baliagarria izan daiteke Bizkaiko udalek sortutako [www.beharsarea.eus](http://www.beharsarea.eus) webgunea eta zerbitzua. Herriko enpresek langile euskaldunak kontratatzeko zerbitzua da, eta langile euskaldunek ere beren burua eskain dezakete.
- Eremu erdalduneko gazteen hizkuntza ezagutza oso apala da, ez dute euskaraz entrenatzeko mailarik: esaldi esklatiboak gaztelaniaz osatu ohi dituzte, baita azalpen teknikoak ere. Horrez gain, ez dute euskararekiko atxikimendurik.
- Entrenatzaileen euskarazko hiztegi teknikoaren ustezko zailtasuna euskaraz ez aritzeko aitzakia bat da. Beste batzuk, aldiz, blokeatu egin ohi dira den-dena euskaraz egin nahian.
- Athleticek bere entrenamendu eredua ezartzen du Bizkaiko klubetan: eredu horren arabera entrenatzen dira Bizkaiko klubak. Garrantzitsua da Athleticek arlo horretan euskara zaintzea, entrenatzaile euskaldunak eta euskaraz ariko direnak bidaltzea herri euskaldunetara. Athleticek eta klub erreferenteek asko egin dezakete kirolean euskara sustatzearen alde.
- Garrantzitsua deritza gurasoen erabileraren aldeko aktibazioari. Oso faktore garrantzitsua da gurasoak “mobilizatzea” klubetan “presioa” egin dezaten.
- Covid-19a dela eta, entrenamenduak egiteko orduan euskarazko burbuilak eratzea neurri eraginkor bat izan daiteke.
- Berrikuntzari dagokionez, garrantzitsua deritza Twitterrek eskaintzen dituen bideak ikertzeari.
- Jaurlaritzaren planak eskola-kirolarekin lotura izan beharko luke, zuzenean edo zeharka.

### 2.3. AMIA

Kirol eta euskara munduko eragile horien guztien iritziak eta ikuspuntuak jaso ondoren, ondorengo taulan azaltzen dira Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak plan honetarako identifikatu dituen Aukera, Mehatxu, Indargune eta Ahuleziak (AMIA):

Indarguneak	Ahuleziak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskarazko prestakuntza eskaintzea Jaurlaritzaren eskumena izatea</li> <li>• Entrenatzaile, klub eta federazioei hizkuntza-estrategia eta baliabideak eskura emateko gaitasuna izatea</li> <li>• Hizkuntza planen diseinu eta garapenean esperientzia handia izatea</li> <li>• Kirol arloan antzeman den beharra datu objetiboetan oinarrituta dago.</li> <li>• Baliabide ekonomikoak jartzeko aukera</li> <li>• Sustapen arloan esperientzia handia izatea</li> <li>• Euskal kirolariri buelta bat emateko aukera</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kiroletakoak gure eremura erakartzeko gaitasun falta</li> <li>• Kirol arloan hizkuntza-irizpiderik ez, ohitura falta nabarmena</li> <li>• Eremu erabat berria HPSrentzat, aliatuak topatzeko lana hartu gure gain</li> <li>• EASEko adierazleen artean kirolean euskararen erabilera adieraziko duten adierazle falta</li> <li>• Emakume kirolariei begira, estrategiaren beharra: balio erantsia duen zerbait eskaini</li> <li>• Kirol gehiegitan esku hartu nahi izateak ito gaitzake. Futbola eta saskibaloia aldi berean arriskutsua izan daiteke</li> <li>• Plana futbolera bakarrik mugatzeak, hankamotz eta ahul. Kirola ez da futbola soilik</li> <li>• Kirol formakuntza sistema nahasia, batasunik ez</li> <li>• Arlo honetako hitzarmengintza garatuta ez egotea</li> </ul>

Aukerak	Mehatxuak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sektore osoan eragiteko aukera: jokalaria, entrenatzaile, epaile, klubetako zuzendaritza, guraso...</li> <li>• Entrenatzaileen prestakuntza gabezia orokorra</li> <li>• Orain arteko esku-hartze puntualak sistematizatzeo aukera</li> <li>• Entrenatzaileek gazteen artean duten erreferentzialtasuna aprobetxatzea, entrenatzaileak gero eta euskaldunak direlako</li> <li>• Talde kirolek helburu linguistikoak lantzeko ematen duten aukera</li> <li>• Kirola gazteen aisialdi-aukeren arteko arrakastatsuen: 8 eta 18 urte bitarteko gazteen hamarretik bost futboleant</li> <li>• Entrenatzaileen prestakuntza eskaera asko handituko da kirol lanbidearen lege berria onartzean, eta euskararentzat aukera paregabea</li> <li>• E-learning formakuntza hasi berria izatea</li> <li>• Hainbat eragilek egitasmo honekiko aldekatasuna agertu dute</li> <li>• GFAk Soziolinguistika Klusterrarekin sortu duen erabilera neurtzeko tresna, baliagarria izan daiteke</li> <li>• Gazteen euskara ezagutzak eta gaitasunak gora egin dute</li> <li>• Eskola-kirolean aldundiek duten egitura</li> <li>• Aurrekari eta sare egonkor falta, euskalgintzak ez dio kirolari erreparatu orain arte</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirolen formakuntza ez-formalean Jaurlaritzak eskumenik ez izatea</li> <li>• Eskolatik kanpo gaztelera erabiltzeko ohitura dute gazteek</li> <li>• Kirol arloko eragileen inplikazio falta: entrenatzaileak, klubak, epaileak, gurasoak, zenbait federazio...</li> <li>• Euskara ez da kirolaren hizkuntza: euskarak ez du isladarik/tokirik hedabideetako kirol ataletan</li> <li>• Oztupoak partida osoa euskaraz garatzeko: epaileak, esaterako</li> <li>• Futbolaren hegemonia</li> <li>• Eremu oso zabala da: generoa, kirol mota, adina, lurraldea... hainbat alderdi hartu behar dira kontuan.</li> <li>• Erreferenteak diren kirolean euskal erreferente gutxi</li> <li>• Kirol-esparruaren finkotasun eza, entrenatzaile gazteek arin ihes egiten dute.</li> </ul>





## 3. LANDUTAKO PROZESUA ETA METODOLOGIA

### 3.1. AZALPEN OROKORRA

HPS-k hartu du, zuzenean, prozesuaren lidergoa eta, ikerketa guztiak eta jasotako informazio guztia kontuan izanik, plan hau burutzeko azken fasean murgildu da, betiere aipatutako eragileekin kontraste lan betean.

Esan bezala, planak euskarri garrantzitsu batzuk izan ditu. Ikerketa horietan oinarritu da gogoeta estrategikoa eta egin diren planerako proposamenak. Ondorioz, merezi du horiek aipatzea, labur bada ere.

Euskara alorreko iturriak:

- *D ereduko Kirola 2016-2018* (Soziolinguistika Klusterra, 2019)
- *Gipuzkoako Futbol klubuen egoera* (Aztiker, 2019)
- *Gu Gazteok. 12-14 urteko gazteen hizkuntza egunerokotasunera hurbiltzeko ikerketa partehartzailea* (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016)
- *Euskarazko IKTak: gomendioak herri-aginteentzat* (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2016).
- Euskararen Adierazle Sistema, EAS (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
- *VI. Inkesta soziolinguistikoa* (Euskarabidea, HPS, EEP, 2016)

Kirol alorreko datuak jasotzeko erabilitako iturriak:

- Euskadiko Gazteak (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, 2017)
- EAEko Kirol Federazioen 2019ko datuak: Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza, Consejo Superior de Deportes, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kiroldata aplikazio informatikoa eta ASFEDEBI-k zein EKFB-k espreski igorritako datuak
- Kirol Formazioaren gaineko datuak: Kirolaren Euskal Eskola <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurkitza/kirolaren-euskal-eskola/>
- *EAEko kirol arloko giza baliabideen lan-egoerari eta kualifikazioari buruzko azterlana* (Kirolaren Euskal Eskola, 2016)

- Kirol federazioen egoera aztertzeko: *La situación del deporte en Euskadi: una visión general* (Kirol Arlorako Iritzi Taldea KAIT, 2016)

Kudeaketaren alorreko metodologiak:

- “Aurrerabide”: Eusko Jaurlaritzarako egokitu den eredua, “Kudeaketa aurreratuan” oinarritua.
- “Mapa Estrategikoa” eta “Aginte Taula” izeneko tresnak hartu dira oinarri metodologiko gisa. Tresna hauekin, helburuen analisia, zehaztapena eta hedapena errazten da. Gero azalduko den moduan, helburuen arteko kausa-ondorio erlazioetan dago oinarrituta metodologia hau.
- Adierazleen definizioa: helburuak zehazteko, komunikatzeko eta kontrola egiteko funtsezko tresna gisa.

Eusko Jaurlaritzaren alorreko iturriak, legegintzaldiko plan direnak, eta araudia:

- 1.- Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa.
- 2.- Eusko Jaurlaritzaren gobernu programa 2020-2024
- 3.- Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020
- 4.- Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia, VI. Plangintzaldia 2018-2022
- 5.- EAE-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Plana.

2021eko hasieran egindako prozesutik ateratako diagnosi-txostena oinarri hartuta aurrerabide metodologiaren arabera plana diseinatu da. Hastapen-prozesu horretan hainbat bilera egin dira euskara eta kirol esparruetako eragile klabeekin testuingurua ezagutu, beharrianak identifikatu eta aurrerapauso posibleak identifikatzeko. Behin hori eginda, plana osatu eta bigarren bilera-erronda egin da aipatutako eragileekin, behin-behineko plana ezagutarazi eta haien ekarpenak jasotzeko. Ekarpenok aztertu eta txertatu ostean, behin betikotzat eman da plana.

Honako eragile hauen beharrak eta ekarpenak jasota osatu da plana:

- Aldundietako euskara zerbitzuak
- Jaurlaritza eta aldundietako kirol zerbitzuak
- Hezkuntza (Kirolene)
- Udalak
- Kirol federazioak (gaur gaurkoz, futbol federazioak)
- Aholkularitza enpresak (kirolean euskararen aldagaia txertatzen dutenak)

- Kirol talde erreferenteak
- Euskalgintza soziala

Planaren eraketan bi motatako helburuak bereizten dira:

- Azken helburuak (AH): kirol arloan euskararen erabilera handitu den edo ez adieraziko digutenak. Hau da, Plangintzaren garapenaren bitartez lortu behar diren azken helburuak dira.
- Helburu estrategikoak (HE): azken helburuak lortzeko landu behar ditugun lerroak betetzen diren edo ez adieraziko digute eta bitarteko helburu bezala har daitezke.

Aipatu den moduan, helburu bakoitza zehazteko eta kontrolatzeko adierazleak definitu dira. Horrez gain, adierazle bakoitzak erreferentziatzeko balio bat edukiko du, "helmuga" deituko dioguna.

Behin helburu eta adierazleak adostuta, helburuen lorpena bultzatzeko beharrezkoak diren proiektuak zehaztu dira.

## 3.2. ERAGIN-ESPARRUA ETA IRIZPIDEAK

Kirolaren eremua hain zabala izanda, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak (hemendik aurrera ESZ) helburu betegarriak ezarri nahi ditu, kirol guztietan aldi berean esku-hartzeko grinak indarrak xahutu eta egindako ahaleginak ezerezan gelditu ez daitezen. Ondorioz, hiru kirol lehenetsi dira kirolean euskara sustatzeko lehen plan estrategikoaren indarraldirako (2021-2024): futbola, errugbia eta saskibaloia, esku-hartze hurrenkera horretan.

Hala eta guztiz ere, nabarmendu beharra dago Kirolean Euskara Sustatzeko Plana ez dela kirol horietara soilik mugatzen. Planaren sustatzaileek beharrezko ikusten dute mugatzea Planak sustatu beharreko euskarazko formakuntza -soilik entrenatzaile-ikasketei zuzendutakoa-, ezinezkoa baita lau urtetan kirol guztietako formakuntzan eragitea. Beste kirol guztiek tokia izango dute planean, eta planak tokian tokiko errealitatera egokitzeko malgutasuna izango du; horrela, tokian tokiko eragileek bestelako kirolean ere eragiteko aukera izango dute Euskalgintza deialdiko dirulaguntzak baliatuz.

Honako irizpide hauetan oinarritu gara aipatutako kirolak hautatzerako orduan:

### 1. Kirola praktikatzan duten gazteen kopurua

Lizentziei dagokienez, hauek dira praktikatuena, genero-ikuspegia kontuan hartuta:

- 1.- Futbola
- 2.- Txirrindularitza
- 3.- Saskibaloia (nahiko parekidea)
- 4.- Igeriketa (nahiko parekidea)

5.- Eskubaloia (nahiko parekidea)

6.- Surfa

7.- Atletismoa (nahiko parekidea)

**2. Kirolak euskal kulturarekin duen lotura:** euskararen erabilera, kirolak EAEn duen prestigioa eta bertako kirola izatea.

**3. Berdintasun-irizpideak kirola lehenesteko orduan:** kirol bakoitzeko fitxa federatibo kopurua.

**4. Kirolak ematen dituen hizkuntza aukerak:** Talde kirolek dute lehentasuna, hizkuntza aldetik indibidualki praktikatzeko diren kirolak baino askoz mamitsuagoak direlako, zuku gehiago atera dakieke. Txirrindularitzak, igeriketak, atletismoak edota triatloiak linguistikoki *front-stagean* gelditzeko arriskua dute, entrenatzailearekin bakarrik aritzekoa.

Ondorioz, eta irizpideok aplikatuta, futbola, errugbia eta saskibaloia izango dira 2021-2024 tartean progresiboki landuko diren kirolak. Planaren prestakuntza ekintzetarako sarbideari dagokionez, lehentasuna emango zaie oinarrizko mailetan, hau da, kategoria baxuenetan aritzen diren entrenatzaileei, objektiboki horiek baitira hizkuntza-ohituretan eragiteko abagune aproposetan daudenak. Hona hemen kirol horiek hautatzeko arrazoiak, betiere 4. irizpidea hautatutako guztiek betetzen dutela kontuan izanda:

## 1.- Futbola

EAEn lizentzia kopuru handiena duen kirola da (2019an 28.499 jokalaria zeuden federatuta). Ez du alferrik “kirol erregea” izen goitiaz: sozialki erabateko erreferentzia da katean, etxean eta komunikabideetan, eta kirola egiten duten gazteetarik erdiak praktikatzeko du futbola, gutxi gorabehera. Egitura eta oinarri sendoa izateaz gain, lurralde osoan herri asko eta askotan daude futbol taldeak.

## 2.- Errugbia

Euskal Herrian prestigio handia eta gizarte-sare nabarmena duen kirola da. Adituen arabera, beste kirol federazio batzuetan baino barneratuago dago euskararen erabilera Euskadiko Errugbiko Federazioan. Horrez gain, soziolinguistikoki aukera paregabeak ahalbidetzen ditu, eremu euskaldun (Ordizia, Gernika, Durango, Hernani) zein erdaldunetan (Bilbo, Getxo, Gasteiz, Donostia) sustraitua baitago. Horrez gain, errugbiak badu linguistikoki erakargarria egiten duen beste faktore bat: klub bakoitzak bere taberna propioa du, eta ohikoa da partida ostean lehiakideak bertan batzea “hirugarren denbora” delakoaren jiran.

## 3.- Saskibaloia

Genero-berdintasunaren ikuspegitik aukera paregabea eman dezakeen kirola da. Hirugarren kirol praktikatuena da EAEn: 2019an 7.961 fitxa zituen, eta horietatik 3.440 emazkumekoenak ziren, futxa



guztien %43 hain zuzen ere. Horrez gain, gure lurraldean egitura sustraitua eta klub ugari dituen kirola da; horietarik 3 talde goreneko mailan daude gaur egun, eta gazteentzat ispilu erakargarria izan daitezke.


### 3.3. PLANEKO ESKU-HARTZEEN KRONOGRAMA

Eragin-eremua finkatu ostean, hona hemen planeko esku-hartzeak gauzatzeko kronograma:

	2021	2022	2023	2024
Futbola	Iraila			
Errugbia		Iraila		
Saskibaloia			Iraila	

Planeko esku-hartze dinamika futbolarekin hasia proposatzen da. Aurrerago aipatu bezala, EAEn fitxa federatibo gehien duen kirola da. Horrez gain, plana diseinatu aurretik ere hurbildu izan zaizkigu futbol arloko eragileak egoeraren larriaz ohartarazi eta proposamenak egiten (tartean eragile garrantzitsu bat: Gipuzkoako Futbol Federazioa). Ondorioz, eta kirol arloan euskara sustatzen aritu diren eragile nagusienak futboleko aritu direla kontuan hartuta, lur hartzeko eremu emankorra izan daitekeelakoan gaude.

Bigarrenik errugbia letorke, adituen ustez eremu aldekoagoa euskararen erabilera aldetik. Gainera, kontuan hartu beharra dago planaren helburuek errealistak izan behar dutela, eta lehen bi urteetan futbola eta saskibaloia uztartzea (talde-kirolen artean fitxa gehien dituzten kirolak) gehiegizkoa izan daiteke. Ondorioz, saskibaloiko esku-hartzea hirugarren urterako uztea proposatzen da.





## 4. PLANAREN BISIOA

Planaren bisioa eta helburu horretara iristeko helburu nahiz estrategiak definitzeari ekingo diogu hemendik aurrera.

Hauxe da prozesu ezberdinetan finkatu den bisioa:

Kirolaren esparruan, 18 urte bitarteko gazteen euskararen erabilera handitzeko estrategia garatzea. Horretarako, eremu soziolinguistikoak kontuan hartu eta horietan eragiteko berariazko ekintzak zuzenduko dira.



## 5. AZKEN HELBURUAK

Azken helburuak zehazteko, lau esparru giltzarri hauek aukeratu dira:



Esparru hauek azken helburuen sailkapena eta aurkezpena egiteko erabili dira. Sustapena, berez, aurreko helburuak lortzeko zehar-lerroa edo bitartekoa da. Sustapen-prozesuetan berebiziko garrantzia izango dute motibazioak eta erantzukizun sozialak, eragin zuzena izango baitute “trebakuntza”, “erabilera” eta “berrikuntza” arloetan.

Planak bi zehar-lerro ditu: genero-berdintasuna eta gizarte-inklusioa; helburu estrategikoak zein ekintza-plana diseinatzean biak ala biak hartu dira kontuan, eta ezein ekintza planean sartu baino lehen berau zehar-lerro horien aldetik egokia den ala ez aztertu da.

Horrez gain, planak arreta berezia jarriko du helburu eta ekintzak EAEko eremu soziolinguistikoaren errealitateetara egokitu daitezkeen; ondorioz, eremu soziolinguistiko euskalduneko helburuek eta ekintzek ez dute zertan eremu erdalduneko berak izan, eta ekintzek eremuaren arabera neurgailu berezituak izango dituzte.

### 5.1. TREBAKUNTZA

#### A.H.1. Kirol entrenatzaile eta epaileentzako trebakuntza

Lehenengo esparru edo arlo giltzarria kirolean erreferente diren entrenatzaile eta epaileak euskaraz trebatzea da. Gazteen euskararen erabilera modu naturalean handituko bada, beharrezkoa da haientzako erreferente diren entrenatzaile eta epaileak euskaraz trebatzea, euskaraz egitea haien

ikasketak. Horrela ahaldunduago egongo dira euskaraz aginduak emateko, taldea animatzeko edota partida zein gazteak gidatzeko. Horrela, berriaz formatutako entrenatzaile eta epaile elebidunak bermatuko genituzke.

Planaren prestakuntza ekintzetarako sarbideari dagokionez, lehentasuna emango zaie oinarrizko mailetan, hau da, kategoria baxuenetan aritzen diren entrenatzaile eta epaileei, objektiboki horiek baitira hizkuntza-ohituretan eragiteko abagune aproposenetan daudenak.

Hori dela eta, hurrengo helburu estrategiko hauek aukeratu dira arlo honetan:

### A.H. 1.1 “Entrenatzaileen euskarazko formakuntza eskaintza bermatzea”

Entrenatzaile ikasketak euskaraz egiteko gaitasuna duten entrenatzailegaien kopuru altua kontuan izanda, eta Kirol Lanbidearen Lege berriak titulu-eskakizunak areagotuko dituela aurreikusten denez, funtsezkoa da entrenatzaileen euskarazko formakuntza eskaintza bermatzea. Izan ere, euskarazko eskaintza zabaldu edota handitu ezean, hainbat entrenatzaile gazte elebidunek ez dute euskaraz egindako ikasketei hizkuntza berean jarraipena emateko aukerarik izango.

<i>Adierazlea</i>	<i>Helmuga (2024)</i>
<i>Entrenatzaile titulua lortzeko eskaintzen diren euskarazko ikastaroen kopurua</i>	<i>% 10eko igoera</i>

### A.H. 1.2 “Ikastaroetan euskaraz ikasten duten ikasleen kopurua igotzea”

Entrenatzaile tituluak eskuratzeko ikastaroen eskaintza handitzearekin batera, ikastaro horiek euskaraz egiten dituzten ikasleen kopurua handitu beharra dago. Izan ere, ikasketok euskaraz egitea entrenamendu zein partidetan euskararen erabilera areagotzeko lehen pausoa da. Ikasketok euskaraz egin ezean, zailagoa da ondoren jokalaria gazteekin euskara erabiltzea.

<i>Adierazlea</i>	<i>Helmuga (2024)</i>
<i>Entrenaile titulua lortzeko ikastaroetan euskaraz matrikulatzen den entrenatzailegai kopurua.</i>	<i>% 20ko igoera</i>

### A.H. 1.3 “Epaileen euskarazko trebakuntza eskaintza egitea”

Euskaraz egiteko gaitasuna duten gazteen kopuru altua kontuan izanda, funtsezkoa da entrenatzaileez gain epaileen euskarazko formakuntza eta trebakuntza eskaintza ere handitzea. Izan ere, euskarazko eskaintza zabaldu edota handitu ezean, ikasketa akademikoak euskaraz egin dituzten hainbat epaile gazte elebidunek ez dute euskaraz egindako ikasketei hizkuntza berean jarraipena emateko aukerarik izango. Entrenatzaileekin batera, epaileak dira jokalarien erreferente nagusiak eta biek (entrenatzaileek eta epaileek) duten lidergoak euskararen erabileraren mesedetan eragin dezake.

<i>Adierazlea</i>	<i>Helmuga (2024)</i>
<i>Epaileei eskaintzen zaien euskarazko ikastaroen kopurua</i>	<i>% 10eko igoera</i>

## 5.2. ERABILERA

### A.H.2. EUSKARAREN ERABILERA

Gorago azaldu den diagnostikoa kontuan izanik, arlo honetan agertzen diren helburuak dira planak barnebiltzen dituenetarik garrantzitsuenak edo, behintzat, planaren amaieran erdietsi beharrekoak: 2021-2024 epealdian lehentasunezkoztat jo diren kirolaren euskararen erabilera areagotzea bai gazteek entrenatzaile zein epaileekin dituzten harremanetan, baita jokalarien artekoetan ere.

Azken helburu hauei dagozkien adierazleen betetze-maila kalkulatzeko, entrenamendu eta partidetan euskararen erabilera neurtzeko metodologiaz baliatzen da; bere aldetik, ekintza-planak jaso eta zehazten ditu metodologia horren aplikazioaren gainekoak.

#### A.H. 2.1 “Jokalarien arteko euskarazko harremanak handitzea”

Diagnostikoaren datuen arabera, kirol arloan jokalarien arteko harremanetan eman ohi da euskararen erabilera mailarik baxuena. Ondorioz, eta planaren azken helburuetarik funtsezkoena 5-18 urte bitarteko gazteen artean euskararen erabilera sustatzea dela kontuan izanda, arreta berezi eta berezitua eman behar zaio helburu honi. Azken batean, planak barnebiltzen dituen estrategia eta helburu guztiak azken helburu hau atzemateko bitartekoak baino ez dira.

<i>Adierazlea</i>	<i>Helmuga (2024)</i>
<i>Jokalarien artean partidetan ematen diren euskarazko harremanen zenbatekoa</i>	<i>% 5eko igoera</i>
<i>Jokalarien artean entrenamenduetan ematen diren euskarazko harremanen zenbatekoa</i>	<i>% 5eko igoera</i>

#### A.H. 2.2 “Entrenatzaile eta jokalarien arteko euskarazko harremanak handitzea”

Diagnosiaren datuak kontuan hartuta, entrenatzaile-jokalaria harremanean erabiltzen da euskara gehien. Planak funtsezkoztat jotzen du komunikazio mota honetan euskarazko erabileran aurrerapausoak ematea; izan ere, entrenatzaileak dira jokalarien hizkuntza-eredu eta erreferente nagusi, eta hori egonkortzeko modurik onena da jokalaria-entrenatzaile binomioan euskarazko harreman-kopurua areagotzea.

<i>Adierazlea</i>	<i>Helmuga (2024)</i>
<i>Jokalarien eta entrenatzailearen artean partidetan ematen diren euskarazko harremanen zenbatekoa</i>	<i>% 10eko igoera</i>
<i>Jokalarien eta entrenatzailearen artean entrenamenduetan ematen diren euskarazko harremanen zenbatekoa</i>	<i>% 10eko igoera</i>

#### A.H. 2.3 “Epaile, entrenatzaile eta jokalarien arteko euskarazko harremanak handitzea”

Jokalaria eta entrenatzaileekin batera, epaileak dira kirol federatuaren hirugarren hanka. Diagnostikoa epaile-jokalaria eta epaile-entrenatzaileen harremanen gaineko komunikazio-hizkuntzari buruzko datu zehatzik eman ez bada ere (arlotan hori soziolinguistikoki garatzeke dago oraindik), adituen arabera gaztelania hutsean izan ohi da epailearekiko komunikazioen erdia baino gehiago; gainera, epaile



elebidun gero eta gehiago dago. Ondorioz, planak funtsezkoa deritzo entrenatzaile-epaile eta jokalaria-epaile harremanetan euskarazko komunikazioa handitzeari, jokalaria-entrenatzaile harremanaren hizkuntza-estrategiekiko osagarriak baitira epaileekin jorratu beharrekoak.

<i>Adierazlea</i>	<i>Helmuga (2024)</i>
<i>Epaiaren eta jokalarien artean partidetan ematen diren euskarazko harremanen zenbatekoa</i>	<i>% 5eko igoera</i>
<i>Epaiaren eta entrenatzailearen artean partidetan ematen diren euskarazko harremanen zenbatekoa</i>	<i>% 5eko igoera</i>

## 5.3. BERRIKUNTZA

### A.H.3. BERRIKUNTZA

Entrenatzailea kirolari gazteen erreferente eta hizkuntza-gidari den heinean, Kirolean Euskara Sustatzeko Plan honek kirol teknikari horren hizkuntza-baliabideak eta hizkuntza-estrategiei buruzko ezagutza indartu nahi ditu. Gazteen arteko erabilera sustatu asmoz entrenatzaileen gaitasuna areagotzea (hizkuntza-gaitasun soila zein erabilera-estrategiei dagokiena) ez da zeharkako bidea, baizik eta zuzenez: entrenatzaileak gidatzen du taldea, zentzu guztietan.

Gauzak horrela, kirolean euskara sustatzeko hastapeneko plan honek Berrikuntza arloan ere entrenatzaileen prestakuntzaren esparruan jartzen du arreta. Entrenatzaileen trebakuntza orain arte gaztelaniaz izan da oro har, salbuespenak salbuespen; ondorioz, HPSk Berrikuntza dakusa prestakuntza eta titulu beharra duten entrenatzailegai gazteak euskarara erakartzeko bide apropos eta eraginkor gisa. Asmoa da EAEn euskara aitzindari izatea entrenatzaileen prestakuntzaren berrikuntza-prozesuan; izan ere, bide berriak zabaltzen ari dira arlo horretan teknologia berrien eduki interaktibo bidez, eta komeni da euskara pauso horretan ondo kokatuta egotea. Horrela, errazago erakarriko ditugu etorkizuneko entrenatzaileak, dagoeneko elebidunak direnak, euskararen erabileraren bidean. Ez bakarrik HPS-k, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak ere bat egiten du euskararen erabilera areagotzeko estrategia-ildo horrekin.

Ildo horretan, ez dira gutxi Berrikuntzak eskaintzen dituen bideak: e-learning irakaskuntza, entrenatzaileen lana erraz dezaketen material eta kirol-metodologiengatik inguruko tresna digitalak eta elkarrekintzan oinarritutako webguneak, besteak beste.

#### A.H. 3.1 “Euskarazko ikastaro ofizialetan multimedia sustatzea”

Gaur egun teknologia berrien agerpenak etenik gabe eraldatzen du irakaskuntza. Sarearen bidezko irakaskuntzak hedapen zabala izan du azken urteotan, eta adituen arabera joera horrek ez du etenik izango aurrerantzean. Irakaskuntza mota horrek irakaskuntza-metodologia berriak zein eduki interaktiboak dakartza berarekin, eta Ariketa Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak plan hau garatzeko funtsezko bidea deritzo kirol federazioei euren ikastaro ofizialetarako erakargarriak izango zaizkien euskarazko e-learning produktuak sustatzeari. Bide horretatik entrenatzailegaiak erakarri nahi ditugu euskarazko ikastaroetara eta euskararen aktibazioarako berriazko moduletara.

<i>Adierazlea</i>	<i>Helmuga (2024)</i>
<i>Multimedia metodologia erabiltzen duten entrenatzaileen euskarazko ikastaroak</i>	<i>% 10eko igoera</i>

### **A.H. 3.2 “Euskarazko ikastaro ofizialetarako material didaktiko eta metodologiko berritzaileak eskaintzea”**

Kirolaren inguruan euskaraz argitaratutako material gehiena Kirola Euskaraz egitasmoaren baitan garatutakoa da, zeina Debagoienako udalek abiatu baitzuten 1993an, eta ondoren Gipuzkoako Foru Aldundiak bere egin zuen egitasmoa herrialde osora hedatuz. Egun GFAko webgunearen atal batean aurkitzen dira (hemen, zehazki) proiektuaren baitan sortutako fitxa didaktikoak, kartelak eta errotuluak. Tamalez, proiektuan ez zuen jarraipenik izan eta material hori eguneratu gabe dago 2009tik. Ondorioz, hutsunea nabarmena da kirol-entrenatzaileen esparruko euskarazko materialgintzan. Entrenatzaileek euskararen erabilera areagotzea helburu, funtsezkoa da horiek eskura izatea garaietara egokitutako material didaktiko berritzailea.

Horren osagarri, komeni da entrenatzaileei euren lanerako berritzaileak eskuragarri jartzea, haien eguneroko lana erraztuko duten tresna metodologikoak, euskaraz sortuak euskaraz erabiltzeko. Merkatuan bada horrelakorik, eta halakoen erabilerak egunero entrenamenduen prestaketak euskara hutsez egitea ahalbidetuko luke, entrenatzaile elebidunek erdarazko euskarrietara jo beharra saihestez gain.

Esan gabe doa batak zein besteak, material didaktiko berritzaile eguneratuek zein tresna metodologikoek, webgune erabilgarri bat, elkarrekintzazkoa, beharko luketela euskarri gisa. Horrela, webgune hori kirol-entrenatzaile euskaldunen erreferente bihurtzea da asmoa.

<i>Adierazlea</i>	<i>Helmuga (2024)</i>
<i>Entrenatzaileei zuzendutako euskarazko material eta tresna metodologikoen kopurua</i>	<i>% 10eko igoera</i>

## **5.4. SUSTAPENA**

### **A.H.4. SUSTAPENA**

Plan honen funtsezko arlo giltzarria aktibazioa da. Ez bakarrik kirolari gazteena, baizik eta kirol esparru osoarena, eta azken batean baita gizarte osoarena ere. Datozen urteetan oso garrantzitsua izango da gizarteak euskararen erabilera bultzatzeko modu aktibo batean jardutea, eta bide horretan arlo estrategikoa da kirolarena, gizartearen ispilu eta aldi berean gizartearen erreferente baita.

#### **A.H. 4.1 “Kirol esparruan entrenatzaile eta jokalaria euskaldunak aktibatzea”**

Kirol klubek euskararen sustapenari garrantzia eman diezaioten lortzeko, jokalaria, entrenatzaile eta bazkideen presioa faktore erabakigarria izan daiteke. Horretarako, eragile horien motibazioa eta aktibazioa piztea erabakigarria izango da, klubaren “erabiltzaile” guztiek zerbitzuak euskaraz jasotzea eskatu dezaten. Aktibazio horrek, bere aldetik, klubaren euskararen erabileraren aldeko

kontzientzia piztaraztea ekarriko luke, hurrengo pauso logikoa klubetan euskara planak martxan jartzea litzatekeelarik.

<i>Adierazlea</i>	<i>Helmuga (2024)</i>
<i>Lehen mailako entrenatzaile eta jokalaria euskaldunen euskarazko agerraldiak</i>	<i>% 10eko igoera</i>
<i>Entrenatzaile eta jokalaria euskaldun aktiboen kopurua handitu</i>	<i>%15eko igoera</i>

#### **A.H. 4.2 “Klubek euskara planak sustatzea”**

Dagoeneko egon badaude euskara plan propioa duten hainbat kirol klub, eta Aldundiek horiek bultzatzeko dirulaguntza-ildoak dituzte. Hala eta guztiz ere, plan horietarik gehienek hizkuntza-paisaia eta komunikazioa jorratzen dituzte gehienbat, ez barne-erabilera, hain justu plan honen ardatza. Planaren diagnosiak argi adierazten duenez, jokalaria-entrenatzaile eta jokalarien arteko harremanetan euskararen erabilera integratzeko pausoak behar ditugu, eta klubek euskara planek norabide horren lanketa egin beharko lukete; hizkuntza-paisaia, komunikazioa eta zerbitzu-hizkuntza garrantzitsuak izanda ere, jauzi kualitatiboa beharrezkoa da (hau da, barne-erabilera sistematizatzea) urrats kualitatiboa eman dadin.

<i>Adierazlea</i>	<i>Helmuga (2024)</i>
<i>Kirol klubek euskara plan kopurua</i>	<i>% 10eko igoera</i>
<i>Euskara planean barne-harremanak sistematizatuta dituzten klubek kopurua</i>	<i>%10eko igoera</i>

#### **A.H. 4.3 “Euskararen prestigioa handitzea”**

Kirol klubek euskararen erabileraren sustapenean urratsak ematea lortu nahi badugu, funtsezkoa da euskara haien “kalitate” estandarretan txertatzea, euskara erabilita kalitatezko zerbitzu bat ematen ari direla ikusaraztea; ez soilik bazkideei dagokionez, baizik eta batik batik klubaren oraina eta etorkizuna diren jokalariei. Klubak euskararen erabileran pausoak eman beharra barneratzen badu, gaurko zein etorkizuneko jokalariek gizarte elebidun sendoagoa eraikitzen lagunduko dute, eta hori berez bada nahikoa sari klubentzat, gizartearen eskaerak gauzatzen lagunduko bailukete. Izan ere, euskara kirolean sistemikoki txertatzeak euskararen prestigioa handitzen lagunduko du.

Hori guztiori erdiesteko beharrezkoa da klubetan diskurtso aldaketa eragitea, eta horretarako pisua handia izan lezakete lehiakortasunari lotutako argudioek: balio erantsia, marka irudia, barne kohesioa, jokalaria-entrenatzaile-langile-bazkide laukoaren gogobetetze eta atxikimendua, etab. Horiek guztiak diskurtsoaren elementu garrantzitsuak dira, eta guztiek zentzu betea har dezakete klubak euskararen erabilera ezaugarri berezile gisa hartzen duen unetik beretik. Halaber, horren aplikazio praktikoetako bat kalitate ziurtagiriak eskuratzean legoke, batik batik Bikain ziurtagiria eta kluba herri-onurako izendatzea.

Kiroletako hedabideen eta kazetarien inplikazioa ere ezinbestekoa da euskararen prestigioa areagotzeko. Oso garrantzitsua da kirolak mugitzen dituen komunikazio bide ezberdinak (prentsa, sare sozialak, ikus-entzunezkoak) euskaraz sustatzea.

<i>Adierazlea</i>	<i>Helmuga (2024)</i>
<i>Lortutako ziurtagiri, izendapen, zigilu edota aitorten kopurua</i>	<i>% 5eko igoera</i>
<i>Kirolarekin lotutako euskarazko komunikazio kanal kopurua</i>	<i>%10eko igoera</i>

## 6. EREMU ESTRATEGIKOA

Behin azken helburuak aurkeztuta, eremu estrategikoa planteatu behar da. Hau da, zer landu behar dugun, bultzatzaile gisa, azken helburu horiek lortu daitezen. Eremu hau eraikitzeke elementu hauek behar ditugu:

### 6.1. ERAGILEAK

Plan hau Eusko Jaurlaritzatik bideratzen da, HPS-k zuzenduta eta lidergoa hartuta. Baina argi dago plan hau gizarteratu behar dela eta oso garrantzitsuak direla beste entitate eta eragile batzuk, elkarlanean burutu beharko baitira hainbat ekimen eta proiektu.

Beraz, honako hauek dira beharrezkotzat hartzen diren eragile nagusiak:

- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (HPS)
- Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza (Kultura Saila)
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila
- Beste erakunde publiko batzuk (aldundiak, Udalak, UEMA...)
- Kirol Federazioak
- Kirol-aholkularitzaren sektorea, euskara ere lantzen dutenak hain zuzen ere
- Herrietako euskara elkarteak
- Guraso elkarteak

### 6.2. TRESNAK


Helburu estrategikoak lantzerakoan argi eduki behar da zer-nolako tresnak dauden eskuragarri esparru ezberdinetan. Honako hauek dira identifikatu diren oinarritzko tresna nagusiak, eragileek martxan jarriko diren proiektuetan bere esku izango dituztenak:

- **Legedia:** Euskal Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legea; Euskadiko Kirol Federazioei buruzko 16/2006 Dekretua; Kirol-klubei eta Kirol-elkarteei buruzko 163/2010 Dekretua; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea; eta 2020-2024 legealdian onartzekoak diren funtsezko lege bi: Kirolaren Lege berria eta Kirol Lanbidearen Legea.

- **Dirulaguntzak:** Euskaingintza deialdia, udalek eta foru aldundiek bideratzen dituztenak.
- **Hizkuntza baliabideak:** itzultzaile neuronala, hiztegi terminologikoak, euskalterm eta abar.
- **Hizkuntza kudeaketarako tresnak:** Aisialdian euskararen erabilera indartzeko estrategia eta tresnak, “Begiraleek asko egin dezakete” gida, hizkuntza kudeaketarako gidak, Aldahitz egitasmoa eta Erreferentzia Marko Estandarra, besteak beste.
- **Ziurtagiriak eta aitortzak:** Bikain, Bai Euskarari, eta “herri onurako” izendapenak (Kultura eta Hizkuntza Politikako Saila), besteak beste .
- **Programak eta egitasmoak:** *Euskara Kirolkide* (Soziolinguistika Klusterra, EHU, GFA eta HPS), Euskal Kirolari programa (HPS) , ...
- **Komunikazioa eta sentsibilizazioa:** HPSk eta beste erakunde batzuek bideratutako kanpainak
- **Sareak eta foroak:** HAKOBA eta EUDEL, besteak beste.
- **Ikerketa:** euskararen erabilera eta ezagutzaren gaineko aldizkako neurketak

### 6.3. ARLO GILTZARRIAK

Behin azken helburuak zehaztuta eta eragileak eta tresnak identifikatuta, azken helburuen lorpena bultzatzeko lehenetsi beharreko arloak aukeratu dira:



Arlo giltzarri bakoitzean helburu batzuk zehaztu dira. Dena den, nahiz eta esparru ezberdinetan sailkatu, helburu gehienak elkarrekin txirikordatuta daude; hau da, ez dira esparru itxi batean kokatzen eta beste esparruetako helburuekin erlazio zuzena dute. Adibidez, entrenatzaileen formakuntzari dagokion

esparruak, erabilerarenak eta aldeketasunarenak harreman zuzen eta betea dute haien artean, eta helburu horiek lortzeko aldi berean egin beharko da lan unereren batean.

Arlo giltzarrien erdigunean osagai garrantzitsu bat agertzen da, funtsezkoa planaren garapenerako: akordioak lortzea. Izan ere, planaren arrakastarako faktorea, eta garatu beharreko estrategiaren gakoa, kirol arloko entitate eta eragile ezberdinen arteko elkarlana eta akordioak lortzeko gaitasuna izango da. Azken buruan, HPS kirol arlotik kanpo kokatzen den eragilea da, eta funtsezkoa da sektorearekin akordioak adosteko gai izatea.

Plana garatzeko eta helburuak lortzeko erdietsi beharreko akordio zehatzak dagozkien arlo giltzarrietan txertatu dira: erakundeen arteko akordioak politika koordinatuak diseinatzeko eta ekintza zehatzak bideratzeko, hala nola, kirol-federazioekin eta kirol klubekin elkarlana sustatzeko akordioak.








## 7. HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZA PLANA

Ondoren, helburu estrategikoak aurkezten dira, arloka. Kasu bakoitzean adierazle bat edo bi proposatzen dira, dagozkien helmugekin, hau da, planaren amaieran lortu beharreko balioekin.



**H.E.1.1.1: EUSKARAZKO MATERIAL DIDAKTIKO BERRITZAILEAK SUSTATU**

Kirol-federazioen zein entrenatzaileen inplikazioa indartzeko, kirol formakuntza eta metodologiarekin lotutako tresna berritzaileak eskaini behar zaizkie, betiere teknologia berrietara egokitutakoak.

Adierazlea	Helmuga
Deialdiko parte-hartzaile eta proiektu kopurua	10
Sortutako materiala	4


**Ekintza plana:**

Proiektuak	Azalpena	Faseak	Entitateak	2021	2022	2023	2024
1.1.1. Euskalgintzako deialdia egokitu eta azpimultzo bat sortu	Ezinbestekoa da kirol begirale edota entrenatzaileentzako euskarazko materialgintza sustatzea. Izan ere, dagoen material apurra zaharraituta dago, eta berau eguneratzeko egoki ikusten da Euskalgintza deialdian azpimultzo bat sortzea berariaz, gutxienez plan honek dirauen bitartean. Adar horretan, materialgintzarekin batera, kirol begirale eta entrenatzaileentzako prestakuntza ikastaroak eta euskarari buruzko trebakuntza ere sartuko da.	Euskalgintza deialdian txertatzeko prozedura hasi  Kirol federazio, kirol irakaskuntza zentro eta kirol esparruko aditu eta eragile euskaldunei horren berri eman, bereziki futbol, saskibaloia eta errugbi mundukoak  Deialdia argitaratu  Proiektuen jarraipena egin	HPS				
1.1.2. Hitzarmenak edo kontratuak bideratu euskarazko material berritzaileak sortzeko	Prestakuntzari buruzko ohiko materialgintzaz gain, komenigarria ikusten da entrenatzaile eta kirol begiraleei haien eguneroko lanean baliagarri izango zaizkien kirol metodologiako tresnak eskaintzea. Entrenamenduak prestatzeko teknologia berriak eskarritzat dituzten tresnak bogan daude entrenatzaile gazteen artean, lagungarri zaizkie, eta komenigarria da horiek euskaraz ere izatea.	Entrenatzaile eta kirol-begirale gazteen beharretara egokitutako prestakuntza-materialaren zein tresna metodologikoen egokitasuna aztertu adituekin batera  Material eta tresna metodologiko motak zehaztu  Zehaztutako materiala finantzatzeko bideak ireki  Materiala eskaini	HPS  Hezkuntza Jarduera fisiko eta kirolaren zuzendaritza				

Proiektuak	Azalpena	Faseak	Entitateak	2021	2022	2023	2024
1.1.3. "Euskara eta Kirola" webgunea sortu eta formazioari/trebakuntzari lotutako atala sortu	Entrenatzaile eta kirol-begiraleei zuzendutako material berritzaileak bilduko dituen webgune baten beharra ikusten da. Atari horrek entrenatzaileek euskaraz lan egiteko dituzten beharrak asetzea luke xedeetako bat; horrez gain, kirolean euskarazko praktika komunitateak eratzten ari diren eragileak saretzeko tresnak eskaini nahi ditu. Besteak beste, hauek lirateke atalak: kirol metodogia, entrenatzaile gidak, hizkuntza-estrategien formakuntza eta tresnak, hiztegiak, kirolirena eta euskararen gaineko ikerketak, entrenatzaile eskaldunen lan-poltsak, sentsibilizazio edukiak eta kirolari erreferente euskaldunei buruzkoak. Federazioen webguneetan (oso arrakastatsuak) webgune honetarako loturak jartzea aurreikusten da, elkarlanean.	Webgunea diseinatu eta izan behar dituen atalak zehaztu Webgunea martxan jarri Zabakundea egin eremuka: entrenatzaileak, federazioak, klubak, euskalgintza instituzionala eta euskalgintza soziala Web gunea elikatu eta jarraipena egin	HPS Jarduera Fisikoa eta Kirolaren zuzendaritza				
1.1.4 Materialaren zabalkundea	Behar-beharrezkoa da zabalkunde egokia izatea Euskalgintza deialdiaren zein hitzarmen eta kontratazio bidez sortutako materialak. Izan ere, dagokien tokietara iritsi behar da: federazioak, kirol irakaskuntza zentroak, kirol klubak, eta azken buruan entrenatzaile eta kirol-begirale gazte eta euskaldunak.	Sortutako materialen zabalkunde estrategia diseinatu Eremuka banatutako material-aurkezpenak egin: federazioak, klubak, entrenatzaileak, etab. Komunikabide eta sare sozialen bidezko zabalkundea egin Ebaluazioa burutu	HPS Jarduera Fisikoa eta Kirolaren Zuzendaritza				

## EREMUA

## ENTRENATZAILEAK



### H.E.1.2 GAZTE GEHIEN ARITZEN DIREN KIROLETAN EUSKARAZKO FORMAZIOA ESKAINI


Arlo honetan, kirol teknikarien formazioan dabilen eragileen inplikazioa indartu beharra dago, eta horretarako laguntza teknikoa eta baliabideak eskaini behar zaizkie.

Adierazlea	Helmuga
Formakuntzaren arloan eragin nahi den kirol kopurua	3
Kirol motaren araberako euskarazko formazio eskaintza handitu	%20ko igoera

## Ekintza plana:

Proiektuak	Azalpena	Faseak	Entitateak	2021	2022	2023	2024
<b>1.2.1. Euskarazko material ezberdinetako didaktikoa eskaini, ahal dela multimedia</b>	Kirol eta entrenamenduaren eremuan euskarazko formakuntza sustatzeko alderia, material didaktiko berritzaileak izatea ezinbestekoa ikusten da. E-learningean oinarritutako multimedia materiala lehenetsiko da	Kirol ezberdinetako formakuntza dauden ikastaroak aukeratu Material mota zehaztu Zehaztutako materiala finantzatzeko bideak ireki Materiala eskaini	Hezkuntza HPS Kirol eta Zuzendaritza				
<b>1.2.2. Kirol ezberdinetako terminologia zabaldu</b>	Urtetan kirolaren arloan landutako terminologia zabaltzeko beharra ikusten da. Zentzu horretan, Kirolaren Euskal Eskolaren (KEE) eskariz, erakunde horren etengabeko Prestakuntza jardueretan kirolerako lexiko bereziaren gaineko ikastaroak ematea aurreikusten da, besteak beste.	Zabalkunde plana diseinatu: kirol taldeak, kirol teknikariak (horietarako KEEko ikastaroak) eta hedabideetako profesionalak kontuan hartuko dituen Zabalkunde plana gauzatu, tartean KEEko ikastaroak.	HPS Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza				
<b>1.2.3. Euskarazko formazioa sustatzeko kanpaina, teknikari eta entrenatzaileei zuzendua</b>	Euskarazko formazioaren eskariak aragotzeko kanpaina bat martxan jartzea beharrezkoa ikusten da, formakuntza ofizialean zein formakuntza ez ofizialean. Matrikulazio garaian egitea lehenesten da.	Zabalkunde plana baloratu Euskarazko ikastaroen matrikulazioa kanpaina diseinatu Euskarazko ikastaroen matrikulazioa kanpaina implementatu Euskarazko ikastaroen matrikulazioa kanpaina baloratu	HPS Kirolene Federazioak Kirol eta Zuzendaritza				
<b>1.2.4. Esperientzia pilotuak martxan jarri herrietako kirol entrenatzaileek euskarazko formazioa jaso dezaten</b>	Kirolenarekin elkarlanean, herri erakunde eta kirolerako taldeekin hitzarmenak sustatu nahi dira, kirol entrenatzaileek formakuntza euskaraz jaso dezaten. Hirugarren eta laugarren eremu soziolinguistikoetara bideratutako ekimena da, eta eskualde euskaldunetara euskarazko entrenatzaile formakuntza hurbiltzea da xedea. Aldi berean, kirola tresnatzat hartuta euskaratik landuko da gizarte-inklusioa.	Hiru lurren proiektu pilotu bana aukeratu Proiektu pilotuak martxan jartzeko finantziabideak aztertu Proiektu pilotuak martxan jarri Proiektu pilotuak baloratu eta lurralde osora zabaltzeko aukera aztertu	HPS Diputazioak Kirolene Udalak Kirol taldeak				

Proiektuak	Azalpena	Faseak	Entitateak	2021	2022	2023	2024
<b>1.2.5. Eremu ez eskaldunetan esperientzia pilotuak martxan jarri entrenatzaile eskaldunak sustatzeko (entrenatzaile eskaldunen harrobia)</b>	Entrenatzaile eskaldunak topatzeko zailtasunak dituzten kirol taldeekin esperientzia pilotu batzuk martxan jarri nahi dira bertako "entrenatzaile eskaldunen harrobi" bat sortzeko helburuarekin. Izan ere, klubek hizkuntzari baino lehentasun handiagoa ematen diote entrenatzaile berria harrobikoa izateari. Oinarritzko trebakuntza eskaintza egitea aurreikusten da.	Hiru kirol talde aukeratu proiektu pilotuak martxan jartzeko  Proiektuak diseinatu  Proiektuak martxan jarri  Balorazioa egin	HPS Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza Kirolene Aldundiak Kirol taldeak				
<b>1.2.6. Kirol-federazioekin hitzarmenak bideratu</b> <b>ikastaroko lehenetsi ditzaten</b>	Kirol ezberdinetako federazioekin akordioak bideratu nahi dira eurek sustatzen dituzten ikastaroak euskaraz eskaini ahal izateko. Hala ere, kirol bakoitzeko federazioekin egin beharreko hitzarmenek bereizgarri propioak ere izango dituzte: errugbiaren kasuan, adibidez, streaming bitartez ematen diren partidetan epailearen mikrofonoa entzun ohi da, eta hor adituak garrantzitsua deritzote hizkuntza-faktorea txertatzeari. Covid ordezkariaren gisa, euskara ordezkariaren figura lantzea aurreikusten da.	Kirol ezberdinetako federazioekin hitz egin eta akordioetarako aukerak aztertu  Finantzabideak aztertu  Hitzarmenak gauzatu  Balorazioa egin	Kirol Federazioak HPS Aldundiak Jarduera Fisikoaren eta kirolaren Zuzendaritza Kirolene				
<b>1.2.7. Ikasleentzako dirulaguntzak bideratu eta horren garapen juridikoa aztertu</b>	Euskarazko ikastaroen eskaintza handitzeaz gain, ikasleen eskaria ere handitzea lortu nahi da. Horretarako, euskarazko ikastaroen "doakotasuna" bilatuko lukeen sistema aztertu nahi da.	Kirolene eta Euskal Eskolarekin batera, kirolaren araberako ikastaro zerrenda bat lehenetsi  Ikasleei dirulaguntzak eskaintzeko aukerak aztertu  Euskarazko ikastaroetan dirulaguntzak esleitzeko sistema martxan jarri  Sistema egonkortu	HPS Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza Kirolene Zuzenbidean adituak				
<b>1.2.8. Entrenatzaile eskaldunen lan-poltsen sistema</b>	Formazioa eta laneratzea lotuta daudenez, beharrezkoa ikusten da planaren bitartez formatuko diren entrenatzaile eskaldunentzat erreferentziazko datu base bat osatzea, hezkuntza eragileekin elkarlanean; ondoren, kirol taldeen eskura uzteko aukera egon beharko litzateke.	Datu basea diseinatu: lankidetzak uztartzeko gaitasuna, eguneratzeko erak, LOPD,...  "Euskara eta kirola" webgunean sortutako atala elikatu  Kirol taldeen artean zabalkunde egin	HPS Kirolene Federazioak Jarduera Fisikoa eta kirolaren Zuzendaritza				




**H.E.1.3: ESKOLA KIROLEKO TEKNIKARIEI EUSKARA HUTSEZKO FORMAKUNTZA ESKAINI**

Eskola kirolaren arloan euskara txertatzeko lan handi eta sistematikoa egin dute foru aldundiak urteetan. Lan horri sinergiak erantsi eta etorkizunean kirol-begirale guztiak elebidunak izan eta euskaraz aritzen direla bermatze aldera, begiraleen formakuntza euskara hutsean izateko pausoak sistematizatzea da asmoa. Horretarako, Kirolaren Euskal Eskolarekin zein foru aldundiekin hausnarketa-prozesu bat zabaldu eta euskara hutsezko formazio ereduak aztertu nahi dira.

Adierazlea	Helmuga
Eskola-kiroleko begirale ikastaroen euskara hutsezko eskaintza	%100
Hizkuntza-estrategien modulua txertatu dituzten begirale ikastaro kopurua	%100

**Ekintza plana:**

Proiektuak	Azalpena	Faseak	Entitateak	2021	2022	2023	2024
<b>1.3.1 Euskarazko formakuntza berrikusi Euskal Eskolarekin batera</b>	Eskola kiroleko begirale ikastaroak bat egiten dute bloke komunarekin, eta hainbat gaztek egin ohi dute ikastaro hori. Ondorioz, beharrezkoa da Kirolaren Euskal Eskolarekin estrategia bat adostea ikastaro hori ematen duten irakaskuntza zentroetan euskaratik eragiteko.	MADE eta bloke amankomuna eskaintzen duten zentro eta federazio elkarleen mapa osatu, hizkuntza barne Irakaskuntza zentro zein federazioetan eragiteko aukerak aztertu eta estrategia partekatua prestatu Estrategiak aurkeztu federazio eta irakaskuntza zentroyei Hitzarmenak bideratu federazio eta irakaskuntza zentroekin	HPS Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza- Kirolaren Euskal Eskola				
<b>1.3.2 Eskola-kirolean euskara hutsezko formakuntza eskaintzeko aukera aztertu aldundiekin batera</b>	Eskola kiroleko begiraleen formakuntza berraztertu beharra dago hizkuntzaren aldagaiari dagokionez, zentzu horretan aldundiek aurrerapauso nabarmenak eman badituzte ere. Azken pauso bat ematea falta da: kirol-begiraleen ikasketak euskara hutsezkoak izatea, egun zerbitzu emango dieten ia ume guztiak elebidunak baitira. Zentzu horretan, komenigarria da ikastarootan hizkuntza-estrategien gaineko oinarritzko kontzeptuak txertatzea.	Mahaia osatzea, eskola kiroleko begiraleentzako ikastaroak euskara hutsez izateko eta ikastaro horietan hizkuntza-estrategien modulua eransteko aukerak aztertze Proposamen bateratuak adostu Euskara hutsezko begirale ikastaroak eskaini, hizkuntza-estrategiak lantzeko modulua txertatuta Jarraipena	Foru Aldundiak HPS Kirolaren Euskal Eskola				



### H.E. 2.1: PARTIDETAN EPAILE ELEBIDUNAK BERMATU


Entrenatzaileekin batera, epaileak dira partida batean jokalariai euskaraz aritzera bultzatzen dezan eragile nagusiak. Gazteen erreferentzia linguistikoak dira; funtsezkoa da esparru horretan eragitea, zailtasunak entrenatzaileen eremuan baino handiagoak badira ere. Izan ere, epaileen formazioaren zati handi bat Espainiako federazioak ematen du, eta gaztelania hutsez izaten da. Ondorioz, beheko mailetatik eragiten hastea da asmoa, eta horretan federazioak izan behar ditugu bidelagun.

<b>Adierazlea</b>	<b>Helmuga</b>
Eragin nahi den kirol kopurua	3
Epaile elebidunak izateko programatutako partidak	%20ko igoera

### Ekintza plana:

Proiektuak	Azalpena	Faseak	Entitateak	2021	2022	2023	2024
<b>2.1.1 Epaile elebidunen datu basea sortu</b>	Federazioekin egin beharreko hitzarmenaren baitan toki berezia hartuko du federazio bakoitzak epaile elebidunen datu basea sortzeak, sistematizazio lan horrek bide emango baitu gero beheko mailetak partidetan epaile elebidunak bermatu ahal izateko.	Federazioekin datu basea osatzeko aukerak aztertu Epaileei proiektuaren berri eman Federazioak datu basea osatu	HPS Federazioak				
<b>2.1.2 Kirol federazioekin akordioak lortu partidetan epaile elebidunak ziurtatzeko, maila baxuenetatik hasita</b>	Federazioekin egin beharreko hitzarmenaren funtsezkoa izango da partidetan epaile euskaldunak programatzeko sistematizazio lan bat adostea eta aurrera eramatea. Esku-hartze progresibo bat aurreikusten da, beheko mailetak partidetan programatzen hasita, jokalaria gazteenen hizkuntza ohiturak errotetik hasita.	Federazioekin batera partidetan epaile elebidunak programatzeko aukerak aztertu Beheko mailetan epaile elebidunak programatu Jarraipena egin, adostutakoa betetzen dela ziurtatzeko	HPS Federazioak				





### H.E.2.2: “EPAILEEK HIZKUNTZA-ESTRATEGIAK BARNERRATU ETA APLIKATU

Entrenatzaileekin batera, epaileak dira partida batean jokalariai euskaraz aritzera bultzatzen dezan kanpo-eragile nagusiak. Gazteen erreferentzia linguistikoak diren heinean, funtsezkoa da haien hizkuntza ohituretan eragitea, partidetan jokalariekiko harremana euskaraz izan dadin. Horretarako epaileak hizkuntza-estrategietan trebatu eta tresnak ematea da asmoa.

Adierazlea	Helmuga
Eragin nahi den kirol kopurua	3
Ikastaro kopurua	6
Epaileen euskararen erabilera partidetan	%20ko igoera

#### Ekintza plana:

Proiektuak	Azalpena	Faseak	Entitateak	2021	2022	2023	2024
2.2.1 Hizkuntza estrategiak lantzeko ikastaroak eskaini	Epaileen erreferentzialtasun linguistikoa areagotze bidean, euren funtzio linguistikoetara (aginduak, azalpenak) egokitutako hizkuntza-estrategien trebakuntza eskaintzea da asmoa. Epaileak euskaraz seguruago aritze aldera, modulu berean landuko da lexiko berezitua ere.	Federazioekin aukerak aztertu epaileei hizkuntza-estrategien ikastaroak eskaintzeko Ikastaroak epaileen beharrezanetara egokitu Ikastaroak eskaini Ikastaroen jarraipena egin	HPS Federazioak				

### H.E.3.1: KIROLETAKO TALDEETAN EUSKARA PLANAK ETA ERABILERAREN AKTIBAZIOA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK SUSTATU ETA KOORDINATU

Kirolean euskararen erabilera sustatzea lan integrala da, kirola osatzen duten eragile guztien inplikazioa behar du. Hori dela eta, funtsezkoa da talde-kiroletan errotik, klubetik hastea erabilera lantzen. Adituen esanetan, klubean zuzendaritza batzordeen inplikaziorik ezean, erabilera bultzatzeko ahaleginak antzuak izan ohi dira, jokalaria eta entrenatzaileek lortutakoa azkar batean desagertu daiteke. Arrisku horri aurre egin eta klubetan euskararen kudeaketa txertatze aldera, komenigarria da sektorean euskara planak eta erabilera aktibatzeke ekimenak sustatzea; horretarako, erakunde publikoen laguntza-sistema berregituratzea proposatzen da.



Adierazlea	Helmuga
Eragindako kirol kopurua	10
Sustatutako plan kopurua	%20ko igoera

### Ekintza plana:

Proiektuak	Azalpena	Faseak	Entitateak	2021	2022	2023	2024
3.1.1 Euskara planak sustatzeko dirulaguntzen mapa adostu aldundiekin batera	Aldundiek kirol federazioak euskaldundu eta kirol klubetan euskara planak egiteko dirulaguntzak eman ohi dituzte, baina sarritan deialdi espezifikorik egin gabe, elkarreki bideratutako deialdien baitan. Egoki ikusten da laguntza gaineke hausnarketa prozesu bat zabalitzea, klubetako euskara planetan indar egite aldera.	Eskola-kiroleko formakuntza aztertzeke aldundiekin sortu beharreko mahaia baliatu gaia lantzeke, eta hala behar balitz azpibatzorde bat eratzeke	HPS Foru aldundiak				
		Euskara planak sustatzeko aldundiek ematen dituzten dirulaguntzen mapa osatu eta aztertu					
		Proposamen bateratua aurkeztu					
		Dirulaguntza deialdiak egokitu/sortu					
		Deialdien sustapena egin kirol klubean artean					
	Dirulaguntzen deialdia egin	Jarraipena egin					

Proiektuak	Azalpena	Faseak	Entitateak	2021	2022	2023	2024
<b>3.1.2 LanHitz deialdia moldatu kirol klubak erakartzeko</b>	Planaren lan-ildo honetarako oso baliagarria izan daiteke LanHitz deialdia. Orain arte kirol erakunde oso gutxi parte hartu izan dute deialdian. Hori dela eta, kirol klubak euskara planen olatura igotzeko LanHitz egokitzea proposatzen da.	<p>LanHitz deialdia berraztertzeke batzordea eratu</p> <p>LanHitz kirol klubaren parte-hartzea sustatzeko azterketa egin</p> <p>Proposamenak aurkeztu eta deialdia egokitu</p> <p>Deialdiaren sustapena egin kirol klubaren artean</p> <p>Dirulaguntzen deialdia egin</p> <p>Jarraipena egin</p>	HPS				
<b>3.1.3 Euskararen aldagaia erdigunean jarriko duen dirulaguntza politika proposatu</b>	Beharrezkoa ikusten da udalek kirol taldeekin adostu beharreko akordioetan euskara erdigunean jartzea. Dirulaguntzen irizpideetan eragin ezean, euskara kaltetuta ateratzen da beti. Aztertu beharreko hainbat lan-ildo daude jorratzeke: irizpide teknikoaren izaera eta puntuazioa, udal instalazioen lagapena, teknikari elebidunen kontratazioa, kirol-eskoletako hizkuntza-irizpideak, hitzarmenetan euskaraz funtzionatuko duten taldeen ratioak ezartzearena, dirulaguntzetako hizkuntza-klausulen jarraipen ereduak... marko berria tokiko erakundeetara jakinarazi.	<p>Dirulaguntza eredu aztertzeke batzordea eratu</p> <p>Proposamena egin</p> <p>Dirulaguntza marko berria udaletan jakinarazi</p> <p>Jarraipena egin</p>	<p>HPS</p> <p>Jarduera Fisikoa eta Kirolaren Zuzendaritza</p> <p>EUDEL</p> <p>UEMA</p> <p>Udalak</p> <p>Aldundiak</p>				



### H.E.3.2: KLUBETAKO EUSKARA PLANETAN BATIK BAT BARNE-ERABILERA SUSTATU

Kirolean euskararen erabilera sustatzea lan integrala denez, klubetatik bertatik hasi beharra dago hizkuntza-ohiturak astindu eta euskararen aldera lerratzen. Kluba euskararen babesgune izan dadin beharrezkoa da barne-erabileran lan egitea. Badira euskara plana duten zenbait klub, baina horietako gehienek edukia hizkuntza-paisaia, irudia eta aldekotasunera mugatzen da, ez da barne-erabileraren aldeko apustu sendorik egiten. Goitik behera zein behetik gorako aktibazioa, bata zein bestea, egoki dira, helburua barne-erabileraren lanketa integrala egitea baita, klub osoa hartuko duen euskararen erabileraren aldeko dinamika.

<b>Adierazlea</b>	<b>Helmuga</b>
Erabilera sustatzen duten taldeei aitortza kopurua	12
Euskaraldian Ariguneak sortu dituzten klubak	2.000

### Ekintza plana:

Proiektuak	Azalpena	Faseak	Entitateak	2021	2022	2023	2024
<b>3.2.1. Euskararen erabilera sustatzen duten taldeei aitortza egin</b>	Kirolean euskararen erabilera era sistematikoan lantzen duten klubei aitortza eginda, kirol arloan erabileraren gizarteratzea da asmoa. Eredugarritasuna erabilera aldetik, ez horrenbeste ohiko kudeaketa onaren aitortza.	Batzorde bat sortu egiteko hauek izango dituen: aitortza-mota erabaki, neurtzeko modua zehaztu eta horren diseinua egin (lehiaketa, ekitaldia, sari-banaketa klub erreferenteen partidetako atsedenaaldian, etab.) Proposamena garatu Aitortza gizarteratu zabalkunde egin Aitortza egin Jarraipena egin	HPS Udalak Foru Aldundiak Klub erreferenteak				
<b>3.2.2. Euskaraldian ariguneak osatzeko laguntza eskaini</b>	Barne-erabilera lantzeko metodoak jarri behar dira klubaren eskura, eta horietako bat Ariguneena izan daiteke. Klubaren egituraren ezartzeko modu erraza izan daiteke (adibidez, hasiera batean jubeniil taldeak izan daitezke Arigune, eta horiek babestu), eta Euskaraldiaren marka erakargarria da onerako.	Federazioei, udalei eta herri batzordeei proposamena luzatu Lanketa berezia abiatu kirol klubetan: zabalkunde Hitzaldiak eta formakuntza antolatu Euskaraldian parte hartu Jarraipena egin	HPS Euskaraldia Euskaraldiko Herri batzordeak Udalak				

Proiektuak	Azalpena	Faseak	Entitateak	2021	2022	2023	2024
<b>3.2.3 Hizkuntza eskubideak bermatze aldera, tresnak eman kirol taldeei eta federazioei</b>	Alde biko lanketa aurreikusten da. Batetik, elkarteko kide, bazkide, jarraitzaile eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatze aldera, idatzizko ballabideak emango zaizkie kirol taldeei, batik batik Itzultzaile neuronala. Aldi berean, tresna berak eskainiko zaizkie kirol federazioei, klubetako euskarazko harremana bermatze eta sustatze aldera. Horrela, federazioetan euskarazko eskaera (aktak, helegiteak...) areagotzea da asmoa. Itzuliren zabalakudea egiteaz gain, kirol terminologian trebatutako Itzultzaile neuronal berezitua sortzeko aukera aztertuko da, beti ere eskariaren arabera.	Kiroltalde itzultzaile neuronal berezituaren aukera aztertu, eta hala bada, beratu diseinatu Itzultzaile neuronalak kirol taldeen artean zabaldu Jarraipena egin	HPS				
<b>3.2.4 Ohiko euskara plan sendoa hedatu ezin dutenen kirol taldeentzat plan erabilerrazagoak jarri eskura</b>	Kirol talde askok ez dute ohiko euskara plan mardul eta sendoa diseinatu eta martxan jartzeko beste ballabiderik, kontraste bileretan eragile askok aipatu bezala. Hori dela eta, beharrezkoa ikusten da erabilera bultzatzeko neurri eraginkor sorta bat bilduko duen mikroplan eredu bat sortu eta kirol elkarten eskura jartzea (adibidez, terminologia ezaguna emanda: Ahobizi eta Belarripres, kasu). Zabalakudea ikus-entzunezko euskarrien bidez egitea aztertuko da.	Egoera aztertu eta mikroplan ereduak sortu Testeatu Zabalakudea (udalen bitartez, besteak beste) Jarraipena egin eta neurri zuzentzaileak proposatu eta ezarri, hala behar izanez gero	Euskara Sustatzeko Zuzendaritza Ikerketa eta Koordinazioko Zuzendaritza Adituak Udalak				
<b>3.2.5 Kapitain eta delegatu elebidunak aukeratzeko sustapen berezia egin</b>	Kirol taldeetan funtsezkoa da kapitainaren figura, eta aditu askok azpimarratu dute euskararen erabilerrako beratu elebiduna izateak duen garrantzia, taldearentzat linguistikoki balio erantsia baita. Hori dela eta, kirol taldeek (beheko mailetatik hasita) kapitaina hautatu behar dutenean hizkuntza faktorea kontuan hartzeko lanketa bat egingo da klub erreferenteekin. Gauza bera egingo da taldeko delegatuaren figurarekin (askotan jokalariren baten gurasoa), hainbat funtzio linguistikoki betetzen baititu	Ekimena diseinatu Gauzatu Zabalakudea egin	HPS Klub erreferenteak Euskara elkarteak				



**H.E.3.3: ZUZENDARITZA BATZORDEEKIN LANKETA BEREZITUAK EGIN**

Jokalariai, entrenatzaileak eta epaileak bezala, zuzendaritza batzordeak ere kontuan hartu beharreko eragile garrantzitsuak dira. Izan ere, behetik gorako erabileraren aldeko estrategia ez da eraginkorra izango botereguneetan kontzientziazio lana egin eta erabileraren aldeko erudugarritasuna jorratzen ez bada. Hori dela eta, beharrezkoa da hizkuntzaren kudeaketa zuzendaritza batzordeen agendetan txertatu eta gaia mahai gainean jartzea. Horretarako, lanketa ezberdinak proposatzen dira: klubek euskararen erabilera euren estatutuetan txertatzeko kanpaina, aldekatasuna lantzeko ekimenak, zuzendaritza batzordeetan euskara gehiago erabiltzeko jarduerak, etab.

Adierazlea	Helmuga
Klubn estatutuetan euskararen erabileraren gaia txertatzen duen talde kopurua	12
Euskararen presentzia zuzendaritza batzordeetan	%20ko igoera

**Ekintza plana:**

Proiektuak	Azalpena	Faseak	Entitateak	2021	2022	2023	2024
3.3.1. Kirol taldeen zuzendaritza batzordeen bileretan zein asanblada orokorretan euskararen erabilera landu	Lan-ildoak lur hartu eta klubetako zuzendaritza batzordeek euskara erabil dezaten lanketa berezi eta indartsu bat sustatu. Baliabideak eskaini barne erabilerara lantzeko (estrategiak, euskarriak, hitzaldi informatiboak, etab.)	Lanketa berezi bat prestatu klub erreferenteekin batera gaia piztarazteko	HPS Klub erreferenteak				
		Klub erreferenteekin akordioak bilatu					
		Klub erreferenteekin akordioak gauzatu					
		Jarraipena egin					

Proiektuak	Azalpena	Faseak	Entitateak	2021	2022	2023	2024
<b>3.3.2 Zuzendaritza batzordeek hizkuntzaren kudeaketa beren gain hartzeko ekimenak abian jarri</b>	Hizkuntza-paisiaren konpromisoak gainditu asmoz, beharrezkoa ikusten da klubeko zuzendaritza batzordeak estatutuetan euskararen erabilera bere gain hartzeko sentsibilizazio kanpaina bati ekitea, betiere udalekin elkarlanean. Kanpaina horrek sentsibilizazio hitzaldiak, dirulaguntza politika berria eta udalen zein euskara elkarteen eragite lana hartu beharko lituzke bere baitan.	Kanpaina diseinatu Kanpaina burutu Balorazioa egin	HPS Udalak Euskara elkarteak				
<b>3.3.3 Kirol taldeetako zuzendaritza batzordeen euskararen aldeko atxikimendua landu</b>	Klubuen atxikimendua lortzeko ohiko bideetara hurbiltzeko sustapena egin (Korrika, Euskaraldia, ohiko tokian tokiko akordioak)	Egitarau bat prestatu Kirol taldeetako zuzendaritzekin partekatu Sustapena egin Jarraipena egin	HPS Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza				





### HE.3.4: JOKALARI GAZTEEN FAMILIEKIN LANKETA BEREZITUA EGIN, KIROLARIEK KLUBETAN EUSKARA ERA-BILTZEKO AUKERA BERMATZE ALDERA


Kirol elkarteak osatzen duten eragile anabasa horretan, izan badira euskararen erabilera bermatze aldera rol garrantzitsua zein berezitua jokatzen duten eragile batzuk: gurasoak. Nahiz eta itxura batera klubaren eguneroko errealitatekin eta martxatik kanpo daudela eman, gurasoek zeresan handia dute eta izan beharko lukete seme-alaben aisialdi eremu horretako hizkuntzen erabilpenaz. Horrez gain, presio-talde ere badira, seme-alaben entrenamendu eta partidetan lehen lerroan egoteaz gain, jokalariek gazteen fitxak eta kuotak ordaintzen baitituzte hilerro-hilerro; adituaren esanetan, guraso talde batek euren seme-alabek euskaraz entrenatu behar dutela erabaki duen aldiro, kirol elkartearen Hizkuntza-politika euskararen aldera lerratu du, amfibi bat baino ez bada ere. Horrez gain, ezin ahantz eskola publikoetan guraso elkarteek dutela eskolaz kanpoko kirol arloko kontratazioa egiteko eskumena. Ondorioz, eragin daitekeen eremu gisa ikusten da.

Adierazlea	Helmuga
Entrenatzaile euskaldunen kontratazio kopurua gehitu	%20
Guraso elkarteetan bitartez emandako Hizkuntza-estrategien ikastaro kopurua	12

### Ekintza plana:

Proiektuak	Azalpena	Faseak	Entitateak	2021	2022	2023	2024
<b>3.4.1. Guraso elkarteekin lanketa berezitua egin, eskoletako kirol kontratazioetan eragite aldera</b>	Gurasoak aktibatze aldera, lehenetasunezko zatitza josten da EHIGE Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Konfederazioarekin eskoletako kirol kontratazioaren gaia lantzea. Izan ere, beharrezkoa da guraso elkarteekin elkarlana lantzea, euskara hutsezko kontratazioa bultzatzeaz gain, erabilera aktibatzeko jarraipen sistema ezartzeko. Zentzu horretan, Hizkuntza-estrategien gainerako moduluak eskainiko zaizkie guraso elkarteek. Horrez gain, garrantzitsutzat jotzen da urmeen Hizkuntza eskubideen inGuruko diskurtso lanketa egitea guraso elkarteekin.	Umeen Hizkuntza eskubideak, euskararen erabilera eta eskoletako kirol kontratazioa ardatz izango duen bilera erronda abiatu  Bileretako ondorioak praktikara eramateko ekimen zehatzak martxan jarri: euskara hutsezko kirol kontratazioa, Hizkuntza-estrategien gainerako ikastaroak guraso elkarteekin kontratatutako kirol begiraleei...  Ekimenei jarraipena egin eta baloratu Neurri zuzentzaileak jarri	HPS EHIGE				

Proiektuak	Azalpena	Faseak	Entitateak	2021	2022	2023	2024
<b>3.4.2. Gurasoei begirako lanaketak abiatu udalekin batera</b>	Izan asko dira tokiko erakundeek urteotan kirolaren bueltan martxan jarritako egitasmoak: seme-alabak entrenatzen dauden bitartean euskara praktikatzeko mintzalagun taldeak, kontzientziazio hitzaldiak... Horiek indartu, praktika onak zabaldu eta beste batzuk abiaraztea da asmoa (adibidez, klubera sartu berri diren gaztetxoan gurasoei espreski ematea euskararen gaineko sentsibilizazio saioak, etab.)	Praktika onen bilketa egin udalekin Udalen artean zabaldu Jarraipena egin	HPS Udalak				



#### H.E. 4.1: ENTRENATZAILEEN ETA EPAILEEN PRESTAKUNTZAN EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEKO ESTRATEGIAK TXERTATU


Plan honetan trebakuntza ez da entrenatzaile eta kirol-begiraleen ikasketa ofizialelara mugatzen. Izan ere, kirolean euskara sustatu nahi badugu, formazioak integrala behar du izan: ikasketak euskaraz egitearekin batera, beharrezkoa da gazte elebidunekin aritzen diren entrenatzaile eta epaileek hizkuntza-estrategiak barneratzea. Aisialdiko begiraleek aspaldi barneratu zuten gazte taldeari “egin euskaraz!” esan edo agintzea ez dela estrategia eraginkorra; kirolean ere ez. Ondorioz, jokalaririk gabteen erreferente linguistikoak trebatzea eta tresna egokiak ematea ere bada plan honen egitekoa, nagusia ez bada nagusienetakoa bai behintzat.

Adierazlea	Helmuga
Eragin nahi den kirol kopurua	3
Hizkuntza-estrategien ikastaroen eskaintza kopurua	3/kiroleko
Hizkuntza-estrategien ikastaroak jasotako teknikari kopurua	400
Kirol klubak aktibatzeke euskalgintzak aurkeztutako egitasmo kopurua	20

#### Ekintza plana:

Proiektuak	Azalpena	Faseak	Entitateak	2021	2022	2023	2024
4.1.1 Euskararen erabilera sustatzeko ikastaroak txertatu Kirolenek eskainitako formakuntzan	Kirolaren kudeaketan euskara zehar-lerro bilakatzea da helburua. Bloke amankomunak lantzen dituen gaien artean lehen sorospenak eta berdintasuna dauden gisan, euskara ere zehar-lerro gisako irakasgai bilakatu nahi da.	Proposamena egin Hezkuntzari	HPS				
		Gaia Kirolenerekin aztertu, beharrezkoa balitz batzorde bat eratuta.	Hezkuntza				
		Kirolenek proposamena bere egin eta ikasketa-curriculumean txertatu					
		Lanpostua sortu					
		Hizkuntza-estrategien irakasgaia ematen hasi					
		Jarraipena egin					

Proiektuak	Azalpena	Faseak	Entitateak	2021	2022	2023	2024
<b>4.1.2 Euskararen erabilera sustatzeko ikastaroak eskaini Kirolaren Euskal Eskolaren prestakuntza-sisteman</b>	Kirolen ematen duen bloke komunean bezala, Kirolaren Euskal Eskolan ere hizkuntza-estrategien moduluak txertatzea da asmoa. Kontuan izanda erakunde horrek bi lan ildo dituena (batetik kirol-formazioaren ikuskaritza, bestetik etengabeko prestakuntza jardueren antolaketa), batean zein bestean moduluak txertatzeko aukerak aztertu eta berau eskaintzea da asmoa.	Modulua txertatzeko aukerak aztertu (formazio ereduak, plataforma...) Modulua txertatu Zabalkundea egin Jarraipena egin	HPS Jarraipena Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza				
<b>4.1.3 Euskararen erabilera sustatzeko ikastaroak eskaini federazioei</b>	Hitzarmengintzaren bidez kirol-federazioei euren entrenatzaile-eskoletan hizkuntza-estrategien moduluak txertatzeko eskaintza egingo zaie, batik bat entrenatzaileen hastapen ikastaroei begira. Bi aukera emango dira: formatzaileak formatzea edota ikastaroaren moduluak aholkularitza-enpresa batek ematea zuzenean.	Moduluak diseinatu Entrenatzaile-eskoletan hizkuntza-estrategien gaineko moduluak emateko aukera eskaini federazioei Akordioak egin Entrenatzaileak formatu, haien metodologia-estrategien gainekoak eman ditzaten beren irakasgaietan Jarraipena egin	HPS Federazioak				
<b>4.1.4 Euskara elkarteei dirulaguntzak eman euren herrietako kirol taldeetan trebakuntza eman dezaten</b>	Abstrakzioetik zehaztasunera bidean, garrantzitsua da tokian tokiko euskalgintzak eta kirol klubek elkarlanean lan egitea. Horretarako Euskalgintza dirulaguntza deialdiko aktibazioaren atalean halako proiektuak aurkezteko sustapen lana egin behar da.	Hausnarketa-prozesua abiatu Euskalgintza deialdian: dirulaguntza-lerroa egokitu, aktibazioan espreski txertatu edo indartu... Hartutako erabakiaren inguruko sustapena egin euskara elkarteen artean Euskalgintza deialdia argitaratu Jarraipena egin	HPS				




#### H.E. 4.2: ENTRENAMENDUETAN ETA PARTIDETAN EUSKARAREN ERABILERA NEURTZEKO SISTEMA APLIKATU

Plan honek emango dion bultzada orokorraz gain, tresnak ere behariko ditu kirol munduak euskararen erabilera areagotzeko estrategian. Tresna horietako bat entrenamenduetan eta partidetan euskararen erabilera neurtzeko metodologia eta hortik eratorritako aplikazioak dira. Izan ere, tresna horrek egoeraren berri zehatza eman dezake, behaketa hutsean oinarritutakoa, aitortutako datuetara jotzeko beharrik izan gabe. Antzeko metodologia bat garatzen ari dira Gipuzkoako Foru Aldundian, zeinak eskola-kiroleko partidetako euskararen erabilera neurtzen duen. Asmoa da tresna horretatik abiatuta neurketa eredua zabaltzea, kirol federatiboko entrenamendu eta partidak barne har ditzan.

<b>Adierazlea</b>	<b>Helmuga</b>
Neurketaren lagina	Kirolarien %15
Neurketa kopurua	Bat/lurraldeko

#### Ekintza plana:

Proiektuak	Azalpena	Faseak	Entitateak	2021	2022	2023	2024
<b>4.2.1. Hizkuntza lkerketa eta Koordinazioarako zuzendaritzarekin batera, metodologia prestatu eta neurketak egin</b>	Kirol munduko euskararen erabileraren berri zehatza izateko tresna sortu, zeinak kirol federatiboko entrenamenduak eta partidak hartuko dituen bere baitan. Tresna probatu ostean, hiru lurraldeetan neurketa sistematikoak egitea da asmoa.	Tresnaren ezaugarriak zehaztu Tresna diseinatu Tresna testean Neurketak egin Neurketen emaitzak gizarteratu, batik bat sektorean Jarraipena egin	HPS Aldundiak				



### H.E. 5.1: KIROL TALDEETAN EUSKARARI BALIOA EMAN

Helburua kirolean euskararen erabilera sustatzea bada ere, ezin ahaztu hizkuntza erabiltzeko aldeko jarrerak landu behar ditugula, modu egokian landu ere. Gainera, kontuan hartu beharra dago planaren helburua diren gazteetako gehienak nerabetasun betean daudela, eta orduan eman ohi da euskaratik gaztelaniarako hizkuntza-mudantza. Beraz, hizkuntza erreferenteak trebatzarekin batera, jomuga diren gazteek euskara erabiltzeko aldeko giroa izan dezatela bermatzen saiatu behar du plan honek. Horretarako beharrezkoa da jokalaria ingurunean zainduta sentitzea, klubak euskara erabiltzearen alde egiten duela ikusi eta sentitzea, finean klubak euskararen babesgune bilakatzea. Lan-lerro hau garatzeko egitasmo anitzak jarriko dira martxan: sentiberatze kanpainak, Euskara Kopak, webguneak, eta oroz gain jokalaria eta klub erreferenteen sustapen kanpainak, gazteek euskarazko ereduak behar baitituzte.

Adierazlea	Helmuga
Eragin nahi den kirol kopurua	10
Sustapen kanpainaren ikusgarritasuna	Audientzia/kanpainako
Euskal Kirolari blogaren bisitari kopurua	%15eko igoera
Euskara Kopako klub eta parte-hartzaile kopurua	15


### Ekintza plana:

Proiektuak	Azalpena	Faseak	Entitateak	2021	2022	2023	2024
<b>5.1.1. Kirolari gazteei zuzendutako sentiberatze kanpaina bideratu</b>	Kirolari gazteek euren egunerokotasunean euskara erabiltzea garrantzitsua dela sentitzea da helburu, euren zereginetan txerta dezaten (ez kanpotik ezarritako eginbehar bezala, baizik eta euren ardura propio gisa). Kirolean euskaraz aritzea posible dela erakutsi behar du kanpainak, kirola eta euskara ez direla aparteko munduak.	Kanpaina diseinatu Kanpaina ekoitzi Kanpaina zabaldu Jarraipena egin	HPS Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza EITB				

Proiektuak	Azalpena	Faseak	Entitateak	2021	2022	2023	2024
5.1.2 "Kirola eta Euskara" izeneko webgunean "Euskal Kirolari" bloga txertatu	Kirol munduan euskara balioan jartzeko bidean, funtsezkoa da entrenatzaile eta kirolarientzako erreferentzia izango den webgune bat eratzea, hainbat atal jasoko dituena: kirol metodologiako tresnak, entrenatzaile gidak, hizkuntza-estrategien formakuntza eta tresnak, hiztegiak, kirola eta euskararen gaineko ikerketak, entrenatzaile euskaldunen lan-poltsak... Horrez gain, beharrezkoa ikusten da Euskal Kirolari bloga webgune horren parte izatea, kirolari euskaldun erreferenteen esperientziak beren txokoa izan dezaten.	"Kirola eta Euskara" webgunea elikatu Euskal Kirolari bloga dinamizatu Webgunea zabaldu eremuka (federazioak, entrenatzaile-eskolak, klubak...) eta gizarteratu Jarraipena egin	HPS Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza				
5.1.3 Kirol Federazioekin batera "Euskararen Kopa" antolatu	Federazioekin landutako hitzarmenaren baitan Euskararen Kopa bat antolatzea (lurralde mailakoa baino hobe EAE mailakoa, elkar ezagutzen ez duten jokalariek euskaraz harremanu daitezten). Aldekotasunaren haririk tira eginez gero, zaila litzateke parte-hartzaileak baztertea, baina hori baino zerbaite gehiago beharko litzateke benetan euskara erabiltzen duten klubek soilik parte hartzea nahi badugu. Horretarako, adibidez, federazioek ranking bat osatu beharko lukete (berrez egin ohi dute fair Play edo joko garbiarekin). Bestela, euskara erabiltzen duten klubek sareak parte har dezake zuzenean... Klub eredugarrietako jokalariek sari-banaketan egotea da helburuetako bat.	Parte hartzaileak zehazteko metodoa definitu federazioekin batera Klub eredugarriak inplikatu Lehiaketa gizarteratu Lehiaketa egin	HPS Aldundiak Federazioak Klub eredugarriak				
5.1.4 Izen handiko taldeekin sustapen kanpaina bateratuak bideratu	Jokalarik gazteek euskaraz aritzen diren jokalarik profesionalen ereduak behar dituzte, eta hori elikatu beharra dugu. Horretarako sustapen kanpaina bateratu erakargarriak sortu behar dira, ahal dela klubetatik haratago (hau da, talde ezberdinetako jokalariek elkarrekin batuta). Horrez gain, klub handiek euskara nola lantzen duten erakustea da asmoa.	Hitzarmenak egin klubekin Kanpaina diseinatu Kanpaina ekoitzi Kanpaina egin	HPS Klub eredugarrien fundazioak				
5.1.5 Emakume taldeen euskararen erabilera handiagoari ikusgarritasuna eman eta sustatu	Emakumeen kirol taldeetan gizonetaz baino gehiago erabiltzen da euskara. Hala azpimarratzen dute adituek zein plana diseinatzeko kontsultatu diren azterketek. Joera horri ikusgarritasuna eman eta nabarmentzea da asmoa. Aldi berean, interesgarritzat jotzen da euskara eta feminismoa uztartzen dituzten azterketak kirolera eramatea.	Euskararen azterketa feministetan kirolak duen edo izan dezakeen tokia aztertu Gaiaren inguruko materiala (bideoak, argitalpenak) sortu Zabalkunde egin	HPS Jakin Fundazioa				

Proiektuak	Azalpena	Faseak	Entitateak	2021	2022	2023	2024
<b>5.1.6 Normalizazio-ildoak finkatze aldera, aktibazio ekimeneen katalogo bat sortu</b>	Udalen zein kirol talde erreferenteen eskariz, kirol taldeetan eman diren esku-hartze eta aktibazio ekimeneen katalogo edo gida bat sortzea da asmoa, betiere taldeetan aurrerapausoak emateko ideiak sustatze aldera. Gidak baliagarria behar du izan, bai kirol elkarreentzat, baita udalarentzat ere, eta Kirola eta Euskara webgunean ere izango du bere tokia.	Gidaren aurre-diseinua Informazio bilketa eta gida osatu Aurkezpenak eta zabalikundeak Balorazioa	HPS Aldundiak Udalak Adituak				
<b>5.1.7 Kirol taldeek oporraldietan antolatutako campusetan euskara era aktiboan erabili eta lantzeko tresnak eman</b>	Jokalariei gazteenei zuzendutako hainbat eta hainbat campus antolatzen dituzte kirol elkarteek oporraldietan. Horieta bartzuk euskara hutsean izan ohi dira, baina asko ez. Campusetan euskararen erabilera bermatze aldera, lanketa berezia egingo da federazio eta udalekin elkarlanean: euskarazko campusak sustatzeko kanpaina txiki bat ikus-entzunezko euskarri informatiboekin, erabili beharreko hizkuntza irizpideak, erabilera nola landu jasoko duten euskarri informatiboak... Horrez gain, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak euskarazko campusak laguntzeko zuen lan-ildoan berrezartzea aztertuko da.	Gaia landu eta erabakiak hartu inplikaturako eragileekin Erabaki horietatik abiatutakoak martxan jarri: dirulaguntza lerroa berreskuratzekoak, kanpainak egin... Ekintzak burutu Jarraipena egin	HPS Federazioak Udalak Kluben erreferentia				
<b>5.1.8 Lanketa berezia hedadura nazionalerako zenbait kirolletan</b>	Errugbia, pilota (baitik bat zesta punta), surfa... Egon badaude Euskal Herriko Hegoaldean zein Iparraldean errota dauden kirolak, eta lurralde bien arteko harremana ahalbideratzen dutenak. Kirol horietan euskararen erabilera lantzeko ekimen bereziren bat egitea aurreikusten da (adibidez, Euskal Kirolari blogaren bitartez), federazioekin elkarlanean.	Errealitate soziolinguistikoa eta ekimen posibleak aztertu Ekimenak aurrera eramane eta zabalikundeak egin Jarraipena eta balorazioa	HPS Federazioak Jarduerak Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza				






### H.E. 5.2: KIROLARI ETA ENTRENATZAILE ERREFERENTEEN INPLIKAZIO AKTIBOA LORTU

Joklari gazteek euskaraz aritzen diren goi mailako joklariaren ereduak behar dituzte. Batetik, beharrezkoa da klitxeekin apurtzea (“arraunean eta pilotan bakarrik egiten da euskaraz” bezalakoak). Bestetik, kirola eta euskara izan bateragarriak direla zabaldu behar da, eta zer hoberik horretarako eskura ditugun hainbeste eta hainbeste kirolari eredugarriren adibideak erakustea baino. Plan honek kirol bakoitzeko klub erreferenteekin elkarlanean aritzea eskatzen du, horien inplikaziorik gabe nekez irits gaitzkeelako gazteengana.

Adierazlea	Helmuga
Euskaraldian parte hartzen duten joklari eta entrenatzaile erreferenteen kopurua	%20ko igoera
Adierazpenaren sinatzaile eta atxikimendu kopurua	500

### Ekintza plana:

Proiektuak	Azalpena	Faseak	Entitateak	2021	2022	2023	2024
<b>5.2.1 Euskaraldian “Belarriprest” eta “Ahobizi” rolak joklariaren eta entrenatzaileen artean sustatu</b>	Euskaraldia euskararen erabileraren ereduagarritasuna lantzeko ariketa aproposa den heinean, aukera ezin hobe da joklari, entrenatzaile eta klub ikurretako kideak inplikatzeko. A proposa litzateke klubak prentsa ohar zein sare sozialen bidez jakinaraztea zein joklari eta entrenatzaile izango diren Ahobizi eta Belarriprest, baita horiek Euskaraldia sustatzeko bideoak egitea klubeko Ahobizi eta Belarriprest gazteekin.	Euskaraldia baino lehen klubetan eragiteko kanpaina berezia egin Euskaraldiari begirako estrategia antolatu klub erreferenteetako komunikazio atalekin Euskaraldin parte hartu	HPS Euskaraldia Klub erreferenteak				
<b>5.2.2 Euskararen aldeko adierazpenarako atxikimendu kanpaina sustatu, joklari, entrenatzaile, epaile eta zuzendaritza taldeetako kideen artean</b>	Kirola eta euskara bateragarriak direla erakusteko asmoz, komenigarri ikusten da mezu horixe bera edo antzekoa duen euskararen aldeko adierazpena zabaltea. Asmoa da kirol munduko eragile erreferentziaiek atxikimendua agertzea adierazpenari, zenbat eta masiboagoa hobe. Sinaduraz gain, atxikimenduak modu ezberdinetakoak izan daitezke: argazkiak logo bereziren batekin, bideoak... Ondoren, atxikimendu berezi horiek guztiak Euskara eta Kirola webgunean eskegi daitezke.	Adierazpena sortu Atxikimendu-kanpaina egin Adierazpena zabaldu Atxikimenduak publiko egin	HPS HAKOBA Jarduera Fisiko eta Kirolaren zuzendaritza Klub erreferenteak				



### H.I.E. 5.3: “HEDABIDEETAKO KIROL ATALEAN EUSKARA SUSTATU”

Hedabideak gaur egungo bizimoduaren parte garrantzitsua dira. Hainbat eta hainbat kirolzalek jarraitzen dituzte haien gustuko kirolak hedabide tradizional zein elektronikoen bidez, eta zer esanik ez kirola praktikatzan duten gazteek. Hori dela eta, funtsezkotzat jotzen da kirol atala duten hedabideetan zein kirol hutsezkoetan eragitea, euskarazkoak zein gaztelaniazkoak izan. Horrez gain, harrobiko kirola euskaraz landuko duen esperientzia pilotu bat martxan jartzeko asmoa ere badago. Gainera, euskarari kirolean dagokion tokia emateko ekimen bat zabaldu du Real Sociedad taldeak azken urteotan: jokalaria euskaldunen euskara hutsezko prentsaurrekoak; hari horretatik tiraka gehiago ere egin daiteke.

Adierazlea	Helmuga
Gazteei zuzendutako kiroleko hedabidearen proiektu pilotuaren irakurle kopurua	1.000
Erdal hedabideetako kirol ataletan argitaratutako euskarazko eduki kopurua	50/hilero
Euskara hutsezko agerraldi kopurua	%20ko igoera
Kiroleko prentsan agertutako euskara hutsezko eduki kopurua	20/hilero

### Ekintza plana:

Proiektuak	Azalpena	Faseak	Entitateak	2021	2022	2023	2024
5.3.1. Gazteei zuzendutako kiroleko euskarazko hedabide bat martxan jartzeko esperientzia pilotu bat sustatu	Kirolean dena ez da eliteko kirola: harrobiko kirolak zein lurralde eta EAE mailako kategoria baxuek ere izan badute euren publikoa, kirolariak oroz gain kirolzale ere badirelako. Bizkaiko Cantera Deportiva hedabidea ardatz hartuta, beheko mailetako kirola euskaraz landuko duen hedabide bat sustatzeko proiektu pilotu bat sustatzea proposatzen da, eta tokiko hedabideekin elkarlanean egitea aurreikusten da. Hedabideak jokalaria gazteak izango lituzke protagonista eta hartzaile nagusi aldi berean. Hedabide horrek “Kirola eta Euskara” webgunean tokia izan dezakeen ere aztertuko da.	Proiektua diseinatu Finantzabideak aztertu Proiektu pilotua martxan jarri Zabalkundea egin Jarraipena egin	HPS Euskarazko hedabideak Adituak				


Proiektuak	Azalpena	Faseak	Entitateak	2021	2022	2023	2024
<b>5.3.2. Izaera nazionalako komunikabideekin lan keta berezia egin</b>	Asko dira, euskalgintza instituzional zein sozialean, izaera nazionalako euskal hedabideekin lan keta berezi bat egitea beharrezko ikusten dutenak, batik batik EITB taldearekin. Komunikabideetan kirolari erreferente euskaldunak euren hizkuntzan azalarazteko asmoz, EITBren estilo-liburua eguneratu eta arauen betetze maila zaintzea da asmoa. Horrez gain, euskal komunikabideen kirol atalak indartzeko asmoa dago, horretarako dirulaguntza deialdiak egokituta.	Egoeraren diagnostikoa egin euskarazko komunikabideekin batera Kirolean euskara sustatzeko neurri zehatzak proposatu euskal hedabideei: EITBren estilo-liburua zein horren betetze-mailaren sistematika eguneratu, hedabideen dirulaguntza deialdia moldatu... Neurriak aplikatu Jarraipena egin	HPS Euskarazko hedabideak				
<b>5.3.3 Erdal hedabideen deialdian Kirol atalean euskarazko edukiak sortzea lehenetsi</b>	Euskarazko hedabideetan bezala, gaztelaniazko hedabideetan ere eragin nahi da, euskarak kirolean tartea baduela erakusteko. Ondorioz, erdal hedabideen dirulaguntza deialdiko oinarrien bidez hedabideetako kirol ataletan euskarazko edukiak argitaratzea lehenesteko saiakera proposatzen da.	Dirulaguntza deialdia egokitu Aldaketak jakinarazi eta azaldu Dirulaguntzen deialdia egin Jarraipena egin	HPS Erdal hedabideak				
<b>5.3.4. Agerraldi publikoetan euskara hutsezko komunikazio estrategia garatu eta sustatu</b>	Badira pare bat urte Real Sociedad taldeak GFArekin elkarlanean euskararen aldeko dinamika interesgarri bat jarri zuela martxan Gipuzkoa Berdinago proiektuaren baitan: astean behin edo birritan jokalaria euskaldun batek eman ohi du entrenamendu osteko prentsaurrekoa, euskara hutsean. Bide hori urratu beharra dago klub erreferenteekin batera, jokalarien ahoetatik zenbat eta euskara gehiago entzun, orduan eta erreferentzialagoa izango baita euskara kirolean, batik bat gazteentzat.	Prentsaurrekoak edo agerraldi publikoak euskara hutsean egiteko pausoak eman klub erreferenteekin Komunikazio estrategiak prestatu klub erreferenteetako komunikazio atalekin Prentsaurrekoak eta agerraldi publikoak euskara hutsean egin Jarraipena egin	HPS Aldundiak Klub erreferenteak				

Proiektuak	Azalpena	Faseak	Entitateak	2021	2022	2023	2024
5.3.5 Hitzarmenak bideratu kirol-prentsarekin euskarazko edukiak sortzeko	<p><i>Marca, As, Mundo Deportivo, Sport...</i> EAE mailan gehien irakurtzen diren egunkarien artean daude kiroltakoak. Estrategikoki oso komenigarria da hedabideotan euskarazko edukiak txertatzea. Erdal hedabideen dirulaguntza deialdian kirol egunkarientzako atala txerta daiteke, adibidez. Horrez gain, lanketa berezia egin nahi da Bizkaiko kirol hutsezko hedabide batekin: Cantera Deportiva.</p>	Estrategia diseinatu	HPS				
		Bilerak egin kiroltako egunkarien EAEko arduradunekin	Kirol prentsa				
		Finantzabideak aztertu					
		Euskarazko edukiak txertatu kirol egunkarietan					
		Jarraipena egin					

## 8. MAPA ESTRATEGIKOA

Atal honetan planaren mapa estrategikoa osatzen duen helburu egitura osoa aurkezten dugu. Azaldu bezala, bi motatako helburuak ditugu (azken helburuak eta helburu estrategikoak) eta beraien artean kausa ondorio erlazio zuzena dago. Egitura honetan eta helburuen arteko erlazioan oinarritzen da planaren logika eta koherentzia.


### AZKEN HELBURUAK (A.H)



KAUSA-ONDORIO ERLAZIOA



### HELBURU ESTRATEGIKOAK (H.E.)



AKORDIOAK LORTU



## 9. AGINTE TAULA ESTRATEGIKOA, GOBERNANTZA ETA PLANAREN JARRAIPENA

Helburuak zehaztu eta betekizun mailaren jarraipena modu egoki batean egin ahal izateko adierazle eta helmuga (lortu beharreko balioak) zehatzak ezarri dira helburu bakoitzeko. Helburu, adierazle eta helmugek planaren aginte taula estrategikoa osatzen dute:

<b>AZKEN HELBURUAK</b>		
<b>A.H.1. TREBAKUNTZA</b>		
<b>HELBURUA</b>	<b>ADIERAZLEA</b>	<b>HELMUGA 2024</b>
A.H.1.1 Entrenatzaileen euskarazko formakuntza eskaintza bermatzea	Entrenatzaile titulua lortzeko eskaintzen diren euskarazko ikastaro kopurua	% 10eko igoera
A.H.1.2 Ikastaroetan euskaraz ikasten duten ikasleen kopurua igotzea	Entrenaile titulua lortzeko ikastaroetan euskaraz matrikulatzen den entrenatzailegai kopurua	% 20ko igoera
A.H.1.3 Epaileen euskarazko trebakuntza eskaintza egitea	Epaileei eskaintzen zaien euskarazko ikastaroen kopurua	% 10eko igoera
<b>A.H.2. ERABILERA</b>		
<b>HELBURUA</b>	<b>ADIERAZLEA</b>	<b>HELMUGA 2024</b>
A.H.2.1 Jokalarien arteko euskarazko harremanak handitzea	Jokalarien artean partidetan ematen diren euskarazko harremanen zenbatekoa	% 5eko igoera
	Jokalarien artean entrenamenduetan ematen diren euskarazko harremanen zenbatekoa	% 5eko igoera
A.H.2.2 Entrenatzaile eta jokalarien arteko euskarazko harremanak handitzea	Jokalarien eta entrenatzailearen artean partidetan ematen diren euskarazko harremanen zenbatekoa	% 10eko igoera
	Jokalarien eta entrenatzailearen artean entrenamenduetan ematen diren euskarazko harremanen zenbatekoa	% 10eko igoera
A.H.2.3 Epaile, entrenatzaile eta jokalarien arteko euskarazko harremanak handitzea	Epailearen eta jokalarien artean partidetan ematen diren euskarazko harremanen zenbatekoa	% 5eko igoera
	Epailearen eta entrenatzailearen artean partidetan ematen diren euskarazko harremanen zenbatekoa	% 5eko igoera
<b>A.H.3. BERRIKUNTZA</b>		
<b>HELBURUA</b>	<b>ADIERAZLEA</b>	<b>HELMUGA 2024</b>
A.H.3.1 Euskarazko ikastaro ofizialetan multimedia sustatzea	Multimedia metodologia erabiltzen duten entrenatzaileen euskarazko ikastaro kopurua	% 10eko igoera
A.H.3.2 Euskarazko ikastaro ofizialetarako material didaktiko eta metodologiko berritzaileak eskaintzea	Entrenatzaileei zuzendutako euskarazko material eta tresna metodologikoen kopurua	% 10eko igoera
<b>A.H.4. SUSTAPENA</b>		
<b>HELBURUA</b>	<b>ADIERAZLEA</b>	<b>HELMUGA 2024</b>
A.H.4.1 Kirol esparruan entrenatzaile eta jokalarari euskaldunak aktibatzea	Lehen mailako entrenatzaile eta jokalarari euskaldunen euskarazko agerraldiak	% 10eko igoera
	Entrenatzaile eta jokalarari euskaldun aktiboaren kopurua handitu	% 15eko igoera
A.H.4.2 Kluben euskara planak sustatzea	Kirol klubetako euskara plan kopurua	% 10eko igoera
	Euskara planean barne-harremanak sistematizatuta dituzten klubetako kopurua	% 10eko igoera
A.H.4.3 Euskararen prestigioa handitzea	Lortutako ziurtagiri, izendapen, zigilu edota aitorten kopurua	% 5eko igoera
	Kirolarekin lotutako euskarazko komunikazio kanal kopurua	% 10eko igoera

## HELBURU ESTRATEGIKOAK

### HE1. ENTRENATZAILEAK

HELBURUA	ADIERAZLEA	HELMUGA 2024
H.E.1.1 Euskarazko material didaktiko berritzaileak sustatu	Deialdiko parte-hartzaile eta proiektu kopurua	10
	Sortutako materiala	4
H.E.1.2 Gazte gehien aritzen diren kiroletan euskarazko formazioa eskaini	Formakuntzaren arloan eragin nahi den kirol kopurua	3
	Kirol motaren arabera euskarazko formazio eskaintza handitu	% 20ko igoera
H.E.1.3 Eskola-kiroleko teknikariei euskara hutsezko formakuntza eskaini	Eskola-kiroleko begirale ikastaroen euskara hutsezko eskaintza	% 100
	Hizkuntza-estrategien modulua txertatu duten begirale ikastaro kopurua	% 100

### HE2. EPAILEAK

HELBURUA	ADIERAZLEA	HELMUGA 2024
H.E. 2.1 Partidetan epaile elebidunak bermatu	Eragin nahi den kirol kopurua	3
	Epaile elebidunak izateko programatutako partidak	% 20ko igoera
H.E. 2.2 Epaileek hizkuntza-estrategiak barneratu eta aplikatu	Eragin nahi den kirol kopurua	3
	Ikastaro kopurua	6
	Epaileen euskararen erabilera partidetan	% 20ko igoera

### HE3. KIROL TALDEAK

HELBURUA	ADIERAZLEA	HELMUGA 2024
H.E. 3.1 Kiroletako taldeetan euskara planak eta erabileraren aktibazioa sustatzeko dirulaguntzak sustatu eta koordinatu	Eragindako kirol kopurua	10
	Sustatutako plan kopurua	%20ko igoera
H.E. 3.2 Klubetako euskara planetan barne-erabilera sustatu	Erabilera sustatzen duten taldeei aitortza kopurua	12
	Euskaraldian Ariguneak sortu dituzten klubak	2.000
HE.3.3 Zuzendaritza batzordeekin lanketa berezituak egin	Klubeko estatutuetan euskararen erabileraren gaia txertatzen duen talde kopurua	12
	Euskararen presentzia zuzendaritza batzordeetan	% 20ko igoera
HE.3.4 Jokalari gazteen familiekin lanketa berezitua egin, kirolariek klubetan euskara erabiltzeko aukera bermatze aldera	Entrenatzaile euskaldunen kontratazio kopurua gehitu	% 20
	Guraso elkarten bitartez emandako hizkuntza-estrategien ikastaro kopurua	12



<b>HE4. ERABILERA</b>		
<b>HELBURUA</b>	<b>ADIERAZLEA</b>	<b>HELMUGA 2024</b>
H.E. 4.1 Entrenatzaile eta epaileen prestakuntzan euskararen erabilera handitzeko estrategiak txertatu	Eragin nahi den kirol kopurua	3
	Hizkuntza-estrategien ikastaroen eskaintza kopurua	3/kiroleko
	Hizkuntza-estrategien ikastaroak jasotako teknikari kopurua	400
	Kirol klubak aktibatzeke euskalgintzak aurkeztutako egitasmo kopurua	20
H.E.4.2 Entrenamenduetan eta partidetan euskararen erabilera neurtzeko sistema aplikatu	Neurketaren lagina	Kirolarien % 20
	Neurketa kopurua	Bat/lurraldeko
<b>HE5. ALDEKOTASUNA</b>		
<b>HELBURUA</b>	<b>ADIERAZLEA</b>	<b>HELMUGA 2024</b>
H.E. 5.1 Kirol taldeetan euskara balioan jarri	Eragin nahi den kirol kopurua	10
	Sustapen kanpainaren ikusgarritasuna	Audientzia/ kanpainako
	Euskal Kirolari blogaren bisitari kopurua	% 15eko igoera
	Euskara Kopako klub eta parte-hartzaile kopurua	15
H.E. 5.2 Kirolari eta entrenatzaile erreferenteen inplikazio aktiboa lortu	Euskaraldian parte hartzen duten jokalaria eta entrenatzaile erreferenteen kopurua	% 20ko igoera
	Adierazpenaren sinatzaile eta atxikimendu kopurua	500
H.E. 5.3 Hedabideetako kirol atalean euskara sustatu	Gazteei zuzendutako kiroletako hedabidearen proiektu pilotuaren irakurle kopurua	1.000
	Erdal hedabideetako kirol ataletan argitaratutako euskarazko eduki kopurua	50/hilero
	Euskara hutsezko agerraldi kopurua	% 20ko igoera
	Kiroletako prentsan agertutako euskara hutsezko eduki kopurua	20/hilero

Aginte taula estrategikoa eta proiektuen planifikazioa, Planaren jarraipena burutzeko oinarrizko tresnak izango dira.

Egitasmoaren ebaluazio sistematikoari dagokionez, planari jarraipen tekniko egiteko talde eragile bat izendatuko da HPS, Jarduera Fisikoa eta Kirolaren Zuzendaritza eta Hezkuntza Saileko kideez osatua, eta lan dinamika honen bitartez burutuko du bere lana:

## TALDE ERAGILEAREN DINAMIKA

- Talde eragilea hiru hileko maiztasunarekin batzartuko da planaren jarraipena egiteko.
- HPSn jarraipen teknikoaz arduratuko den taldeak urteko kudeaketa plana osatuko du lau urterako dokumentu hau oinarri hartuta. Urte bakoitzari dagozkion ekintzak identifikatu eta guztien arteko planifikazioa osatuz, jarraipena modu zehatzago batean egin ahal izatea da asmoa.
- Burutu beharreko ekintzetan edo adierazleen datuetan desbideraketarik balego, gaia aztertu eta, beharrezkoa bada, neurri zuzentzaileak hartuko dira.
- Urte amaieran urteko planaren itxiera balorazioa burutuko da eta hurrengo urteko kudeaketa plana prestatuko da.

Bestalde, HPSk beste erakunde batzuen laguntzarekin ere burutuko du planaren jarraipena. Izan ere, garrantzitsua da eragile eta aditu ezberdinen balorazioak eta ekarpenak jasotzea planaren garapena modu koordinatu batean gauzatu ahal izateko.

Erakundearteko lantaldeei dagokienez, honakoa aurreikusten du planak:

- Erakundearteko Batzordea: HPS, Jarduera Fisikoa eta Kirolaren Zuzendaritza eta hiru Foru Aldundiak (kirol eta euskara arloetako zuzendaritzak) . Lau hilerik behin izango dira bilerak.
- Aditu eta kirol munduko eragileei dagokienez, honako lantalde hau ere aurreikusten dira:
- HPS, Jarduera Fisikoa eta Kirolaren Zuzendaritza eta kirol federazioak
- Azkenik, HPSk planaren bilakaeraren eta lortutako emaitzen inguruan informazioa zabalduko die gutxienez urtean behin kirolean euskararen sustapenean parte hartzen duten eragile ezberdinei, sortuta dauden foro eta lantalde ezberdinen bidez, besteak beste:
- Lurraldeetako euskara teknikarien foroak (Arabako sarea, Alkarbide eta Udalekin).
- HAKOBA

ISBN: 978-84-457-3652-4



9 788445 736524